

innobasque

berrikuntzaren
euskal agentzia

agencia vasca
de la innovación

txostena 2010
4º hiruhilekoa

bazkideentzako txostena



Our approach to knowledge management

| | Know | Don't know |
|------------|--|---|
| Know | <ul style="list-style-type: none">● We know what we know● Disseminate/teach publicize | <ul style="list-style-type: none">● We don't know what we know● Knowledge management |
| Don't know | <ul style="list-style-type: none">● We know what we don't know● Research/investigate | <ul style="list-style-type: none">● We don't know what we don't know● Apply innovation to innovation |

Aurkibidea

| | |
|--|---------|
| 2 minututan: txostenaren laburpena | 4 - 5 |
| I. Itun Publiko-Pribatua indartzea | 6 - 7 |
| <ul style="list-style-type: none"> > Zer da itun Publiko-Pribatua? > Berrikuntza irekia funtsezko politiketan | |
| II. Ingurunearekin lerrokatuz | 8 - 15 |
| <ul style="list-style-type: none"> > Zer dira eraldatze-dinamikak? > Ekonomia Eko-berritzailea Dinamika > Gizarte Efiosasungarria Dinamika > Ekintzaitzaren Indartzea Dinamika > Laugarren Sektorea Dinamika > Openideiak > Inguruneak: lankidetzak garatuz | |
| III. Euskadi eraginkor batekiko konpromisoa | 16 - 24 |
| <ul style="list-style-type: none"> > Zer da Euskadi eraginkor batekiko konpromisoa? > I+g+b Sistemaren Nazioartekotzea (INSIDI) > VII. Programa Esparrua > Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea Dinamizatzea > Diplomazia berritzailea > Innobasque: gehiago gutxiagorekin > Innocampus | |
| IV. Berrikuntzaren sozializazioa | 25 - 27 |
| <ul style="list-style-type: none"> > Zer da berrikuntza sozializatzea? > Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea > First Lego League Euskadi 2010 > Innobasqueren Asteartea > Medioetako inpaktua | |
| ERANSKINAK | 28 - 38 |
| Berrikuntza berritu, Guillermo Ulacia | |
| Langileen partaidetza, Juan Mari Uzkudun elkarrizketa | |
| Euskadi energia-erronkaren aurrean, Oihana Blanco eta Daniela Velte | |
| Berrikuntza da!, Jose María Villate | |
| Talentu aleanitzea, Guillermo Ulacia | |
| Adierazleak proiektua, Carlos Peña | |
| Zahartzaroaren ikusmolde baikorrako baten beharra, Javier Yanguas eta Elena Urdaneta | |
| Balioak, testuinguruak eta lantaldeak, Luis María Ullibarrí eta Olga Gómez | |
| Europaren beharrezko erreakzioa, Paul Ortega | |

2010eko IV.Hiruhilekoa

2 minututan



- > Onartua Berrikuntzako Euskal Sistemaren lehen kanpo-ebaluazioa (OCDE /LGEE standarraren pean).
- > Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Batzorde Zuzendaria abian jartzea (PCTI 2015) eta lehen kontraste-fasea garatua.
- > EkoEuskadi 2020: hasi da itun sozial bateranzko prozesua Euskadiren etorkizun iraunkorrerako.
- > Udalerrak XXI. mendea: udal-betekizuna berrikusteko lehen lantegia garaturik.
- > Lantaldeak sortzea eraikuntza-sektorea bultzatzeko 0 energia-balantzeko eraikinetatik abiatuta.



- > Aurkeztuak europar erregioen zaugarritasunari buruzko emaitzak eta gomendioak energia-prezioak gehitzearen aurrean (RERisk).
- > Baikor zahartzea: zahartze-eredu berri bat eraikiz, 3 woka euskal hiriburuetan.
- > *Housing*. Zerbitzu berrien proiektua aurkezturik etxean gehiago eta hobeto zahartzeko.
- > Pazienteen Erkidegoarentzat online plataforma berria diseinatuz.



- > Nekazaritzako Elikagaien Laborategia abiaraztea.
- > 2010ean EIPG /PGEB (Presentzia Globaleko Enpresa Berritzaileak) potentzialen 36 proiektu erregistratu ditugu.
- > **Negozio sarkarien eredu berriak bultzatzen Euskadiko Piramidearen Oinarriko ahalmenaren diagnostikotik abiatuta.**
- > Innovalan proiektua abian jartzea buruko gaixotasuna duten pertsonak lanean txertatzeko.
- > **132 lantalde aktibaturik OpenIdeiak-en (Berritzaileen Euskal Erkidegoa).**
- > Instagi programa esperimentalala diseinaturik, ETEei zuzendua kudeaketa-dinamika berriak garatzeko.



- > Barnetegi Emozionalaren (Adimen Emozionalaren Partzuergoa) lehen seriearen gizarteratzearen arrakasta.
- > Gainditurik I+G+b-ren europar finantzazioaren helburuak 2007-2010 aldirako, %50ean VII Programa Esparruarekiko (PE).
- > **2.0 Gidaren Argitalpena I+G-aren Teknologia eta Emaitzak Ustiatzearen Transferentziarako.**
- > 2.000.000 € ikertzaileak prestatzeko 2010ean. Iñaki Goenaga Fundazioak 70 beka ematen ditu.
- > Innobasqueren eta haren bazkideen inpaktu publikoaren balioak 2010ean gainditu egin du 5.550.000 euroren kopurua (publizitate-baliokidetzaren arabera).

I. Itun Publiko-Pribatua indartzea

Zer da Itun Publiko-Pribatua?

Ekarpen berezietako bat da Euskadi eraldatze-prozesurako eta nortasun ahaltzu eta bakarria ezartzen dio Innobasqueri.

Plataforma publiko-privatua gure herrialdearen Eraldaketa dinamizatu eta bizkortzeko prozesurako.

Sare publiko-privatua ezin gehiagoraino garatzea behar bat da gure gizartean, zeren eta aukera ematen baitu parte-hartzeko eta tarteko diren eragile guztien ikusmolde partekatu bat izateko eraldaketari loturiko proiektu eta ekimen desberdinetan. Gure osaeragatik, Innobasque topagune egokia da sektore desberdinetako gizarte-eragileak zuzenean edo zeharka inplikatzeko dituzten ekimenak garatzeko, lan-esparruetan adituak diren pertsonentzat, eta proiektuak gidatzen dituzten erakundeentzat. Innobasqueren papera "gidari" (*driver*) izatea da honako jarraibide hauen arabera:

> Balioan jarri erlazio-kapitala eta ahalik eta gehien garatu sare publiko-privatuaren ahalmena, konektagarritasuna, ezagutzaren konexioa eta emaitzetara zuzenduriko hura balioan jartzea erraztuz.

> *Opentric* berrikuntza-eredu ireki eta zentratu baten bitartez.

Zer da **OPENCENTRIC**?

Irekia (**OPEN**)

Eredu ireki bat pertsonen eta erakundearen parte-hartzera, esparru ideal bat ezartzen duena gobernantza-eredu berriek zentzu batea eta baliagarritasuna aurkitu dezaten.

Gure 1.000 bazkide baino gehiago Innobasqueren baitan haren sorreratik burutzen ari diren kapital intelektuala, ezagutza eta ekarpenak txertatzen dituen eredu bat.

Zentratua (**cenTRIC**)

- > Ekintzan zentratua.
- > Pertsonengan zentratua.
- > Proiektua eta ekimen konkretuetan zentratua eta inpaktua handi batekin eraldaketan; eta helburu espezifiko, neurgarri eta kuantifikagarriekin.
- > Politika publikoen kontrastera bideraturiko eredu bat, estrategia-lerroen birformulaziora, erakunde-planetara, lege-proposamentera, etab. "Publikoa denak" gidaturiko proiektuez ari gara (Jauriaritza, Aldundiak, Udalak, Sailarteko Batzordeak...) soziala denaren parte-hartzea behar dutenak. Hitz batean, gauzak egiteko modu berri batez ari gara hitz egiten.

INNOBASQUEREN ZUZENDARITZA BATZORDEA

50 bazkideren (bertaratuen edo ordezkatuak) eta 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren Batzorde Zuzendariaren eta OCDE/ -ren azterlanaren Tokiko Batzorde Teknikoko 10 gonbidatuen parte-hartzea. OCDE-OECD lantaldeko arduradunek Karen Maguire Erregio Berrikuntzako Unitate Burua) eta Daniel Malkin-ek (Nazioarteko Adituak) "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Erregio Berrikuntzaren Sistemaren Ebaluazioa" azterlanaren hasierako gomendioen aurrerapen bat aurkeztu zuten. Mikel Navarro Deustuko Unibertsitateko Ekonomiako Katedradunak eta Orkestrako Ikertzaile Seniorrak, bere ikusmoldea azaldu zuten gure Berrikuntza Sistemaz OCDEren txostenaren aipamena eginez. Innobasqueren Zuzendari Nagusia den Jose Maria Villatek aurrerapen bat eman zuten 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana lantzeaz buruz [2010eko azaroaren 9]

Honakoak gidatzen ari gara:

- 10 erakunde-plan.
- 577 erakunderen (764 pertsonaren) parte-hartzearekin.
- 30 lan-saiotan.
- 23 txosten eman ditugu.

Lan-lerro irekiak

- 2010-2013 Lehiakidetzeta Plana.
- 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana.
- Ikaskuntza Lege baterantz Bizitzan Zehar Euskadin.
- Ikerketa Estrategia Gizarte Berrikuntzan.
- Kualifikazio Handiko Pertsonak Euskadin egoiliar ez direnak 2007-2009 aldirako kontratatutak.
- Gazteriaren Parte-Hartzearen Plan Pilotua.
- OCDE azterlanaren Erregio Berrikuntzaz: Euskal Herria.
- Lehendakariaren Kontseilua Aholkularia Enplegu Estrategia.
- XXI. Mendeko Udalerriak.

LASTER

- Innobasqueren Zuzendaritza Batzordearen Koordinazio Komitea (2011ko otsailaren 14).
- Innobasqueren Zuzendaritza Batzordea (2011ko otsailaren 24)
- Innobasqueren Batzorde Operatiboak (2011ko otsaila-martxoa)
- Berritzaileen Topaketa [GIPUZKOA BERRITZEN]
- Innobasqueren Batzarra (2011 ekaina 16)



BERRITZAILEEN TOPAKETA > Gipuzkoako Berrikuntzarekin konprometitutako pertsonen sareak hitzordua izan zuten, beste behin Gipuzkoa Berritzen-en eskutik, Berritzaileen Topaketaren 2010 bigarren aldia. Izaera irekiko topaketa horretan, ingurune desberdinetako 160 pertsonak esku hartu zuten, *Petcha Kutcha* baten bitartez beren ekimenak aurkeztu zituztelarik. Jardunaldiaren gailur bezala "Gipuzkoa Berritzen-en 2008-2010 Memoria" aurkeztu zen, haren bi urteko ibilbidean sarearen barruan garatutako proiektuen errepasoak eginez. [2010eko azaroaren 16, GIPUZKOA BERRITZEN]

BERRIKUNTZA IREKIA FUNTSEZKO POLITIKETAN

OCDE AZTERLANA ERREGIO BERRIKUNTZARI BURUZ: EUSKAL HERRIA. Berrikuntzako Euskal Sistemari buruzko lehen kanpo-ebaluazioa aurkezturik, OCDEk burutua da, 33 estatuk berretsitako nazioarteko estandarra definitzen duen erakundeak. Azterlan hau, Innobasquek gidatua eta horretarako eraturiko Tokiko Batzorde Tekniko batek, berrikuntzaren zehar-izaerako ikusmolde baten ekarpena egiten du, erakunde-maila gorenean txertatuz. Sistemako eragileen beraien egiletza du, Berrikuntzako Euskal Sistemako ahots kualifikatua ordezkatzan duten 49 pertsonarena, eta era bereziki partikularrean Eusko Jauriaritzarena (izan ere berarekin adostu da abian jartzea, garatzea eta finantzatzea).

"Euskal Herriaren Erregio Berrikuntzaren OCDE Azterlanak" alde zuzeneko azterlanen estandar-maila jaso duenez gero, Euskadi erreferentzia bezala sartu da "Berrikuntza eta Erregio Politiken Txostenean" duen sakontasunarengatik. Azterlan hau OECD *Territorial Development Policy Committee*-k aurkeztu eta onartu zuen. [Paris, 2010eko abenduaren 2an]

2010-2013 LEHIAKIDETZA PLANA. Proiektuaren Batzorde Zuzendariak (EUSKO JAURLARITZAko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila. Orkestra, Euskalit eta Innobasque,) prestamenak garatzen ari dira ebaluatze eta jarraitze-faseari hasiera emateko. [ENPRESA BERRIKUNTZA]

PCTI 2015

> Planaren Zuzendaritza Batzordea abian jartzea, Lehendakariak lideratua eta Eusko Jauriaritzako sei Sailen eta 3 Aldundien lehen mailako ordezkariak eratu. Organo honek ikuspen estrategikoa eta jarduerak, kudeaketa eta baliabide-lerroak definituko ditu, eta bermatu egingo ditu barruti eta eragile enpresarial, zientifiko, teknologiko eta erakundearen koordinazioa eta inplikatzea.

> Kontrastearen lehen fasea garaturik Bulkada Foroaren bitartez, non aurkeztu baitziren Atariko eran aurkeztu helburuak eta estrategiak. Jardunaldiaren helburua, Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako sistemako eragileen 150 ordezkariaren parte-hartzea izan zuena, ikusmolde komun bat partekatzea eta adoste aizan zen 2015 PCTI berria itxuratuko duten helburuei eta estrategiei buruz, gerora haren hedatze operatiboa erraztuko duena. Orobat 2 lantalde ireki dira OpenIdeiak plataforman (2.0 Taldeak) gizartearen eta gaiaz ezagutza duten euskal eragile desberdinen ekarpenak bideratzeko. [2010eko abenduaren 10.]



2020 EKOEUSKADI. Euskadiren Garapen Iraunkorraren estrategia bat da 2020 oster-tzarekin. Ekimen hau abangoardiako estrategia bihurtzeko nahiarekin jaito da, eredu ekonomiko berri bat ernaraztera bideratua eta oparotasun ekonomiko eta gizarte-kohesioari eta ingurumena babesteari buruzko alderdiak irekitzeko gogoeta ireki bat garatzea proposatu dio bere buruari. Gogoeta horren emaitzak politika publikoak bideratzen lagunduko du. Euskadin. Innobasquek parte-hartzearen prozesua garatuko du kontraste eta adoste sozialerako, zeinean esku hartuko baitute erakundeak, instituzio publiko edo pribatuak, eragile ekonomiko eta sozialek eta euskal hiritargoak (gazteriak batik batik) gizarte-hitzarmen bat eraikitzeko xedearekin esparru iraunkor izango dena Euskadiko garapen iraunkorra adostu eta sustatzeko. Prozesu hori ingurune birtualen (OpenIdeiak, eta gizarte-sareak) eta aurrez aurreko topaketen bitartez garatuko da. (Gehiago: ecoeuskadi2020.net eta openideak.com)

XXI MENDEKO UDALERRIAK: UDAL BETEKIZUNAREN BERRIKUSTEA. EUDELekin ezarritako itunaren esparruan, udal-betekizunaren berrikuste bat burutzen ari dira, gobernu-era irekiago bat eraikitzeko helburuarekin, hiritarren esku-hartzea erraztuko duena eta gizarteari bere orokortasunean balio handiagoaren ekarpena egingo diona. Helburu horrekin garatu zen Innobasquen lantalde bat eta bertan 40 alkatek, zinegotzik eta euskal udal desberdinetako pertsonal teknikoek esku hartu zuten.

Tailer horren helburua dokumentu bat lanean izan zen etorkizunean nahi ziren udale-

rri buruz, eta haien eraldatzea eragingo duten berrikuntzak garatzea. Jardunaldian zehar bi jarduerak ardatz detektatu ziren:

- > Udalerria-lurraldearen barrutiko berrikuntzak (nola udalerraren ingurune fisikoaren garatze-ikuspegitik, hala balioenetik).
- > Udalaren baitako berrikuntzak (zerbitzua emateko eta hiritarrekiko harremanen ereduak).

Jardunaldia Jokin Bildarratzek (Eudeleko Lehendakaria) eta Guillermo Ulaciak (Innobasqueko Lehendakaria) inauguratu zuten eta Daniel Innerarity Gobernantzen Euskal Institutuko Zuzendariaren esparru-hitzaldia izan zuen. [2010eko azaroaren 29]

LASTER

- Ecoeuskadi 2020:
 - BILBO: 2011ko urtarrilaren 25, Deustuko Unibertsitateko CRAI Liburutegia
 - ARRASATE: 2011ko urtarrilaren 25, Mondragon Unibertsitatearen Garaia Poloaren Eraikina.
 - VITORIA-GASTEIZ: 2011ko urtarrilaren 26, Artium MUseoa.
- Innobasqueren Gizarte Berrikuntzako Estrategiaren aurkezpena [2011ko otsailaren 22]
- Erregioen Batzordea: Subsidiarotasun eta Berrikuntza Azterlanaren aurkezpena (Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 18)
- OCDE Txostenaren aurkezpena (2011ko apirila)
- Bizitza Zeharreko Ikaskuntza Lege baterantz Euskadin (2. fasea gizarteratzea)
- Bere ingurunera irekitako eskola: txosten teorikoaren eta partaidetza-tailerraren garapen komunikabideen arduradunekin ponentzia kontrastatzeko eta haren rol aktiboa sustatzeko eragile hezitzaile bezala.

II. Ingurunearekin lerrokatuz -LAE

2010-2012 Estrategia
Ekintzako Lerroak

Zer dira eraldaketa-dinamikak?

Gure erronkak gizarte aurreratu guztiek dituztenak dira, zeinek bideratzen baitute beren etorkizuna garatze eta hazte iraunkorreko eredu batera, bere industriaren ekarpena lagundu eta bestearen nahiekiko koherentea dena, mundu-lehiakidetzeta eta presentzia gehituz. Helburu orokor hori ezartzen deneko bidea berrikuntzatik pasatzen da, nola Euskadin hala munduaren gainerakoan, zeren eta berrikuntzan egon baitaitezke prozesu horren gakoak. Bide honetan, Eraldaketa ostertzean dugula, lanean ari gara euskal sare berritzailea hedatu eta sektore gakoak direnei aplikatzeko.

Aktibatze-helburu honekin 5 makro-joera globalekin, 5 eremurekin lerrokatzen gara, zeinetan Innobasque hasieratik aritu baita lanean:


- > Gizarte-garapena
- > Garapen Ekonomikoa
- > Iraunkortasuna
- > Osasuna eta Bizi-kalitatea
- > Agertoki Berriak

5 domeinu horiek gurutzatzearen egungo emaitzak aukera eman digu definitzeko lau eraldatze-dinamika handi, erabakigarriak jotzen ditugunak eta zeinetara geure ahaleginak bideratzen ari baikara 2010/2011n: Ekonomia Ekoberritzailea, Ekintzailletza Indartzea, Laugarren Sektorearen Garapena eta Nazioartekotzea (ekonomia soziala) eta Gizarte Efi Osasungarria.



conectividad

impacto





DINAMIKA Ekonomia EKO BERRITZAILEA

0 BALANTZE ENERGETIKOKO ERAIKINAK

ETXEBIZITZA SAILAren eta EUSKADIKO ERAIKUNTZAREN KLUSTERRAren (Eraikune) lankidetzan lan-talde batzuen dinamika abiarazi da I+G+b proiektuak identifikatu eta abiaraziko dituztenak, eraikuntza-sektorea bultzatuko dutenak 2020ko helburuak betetzen lagunduko duten produktuak eta zerbitzuak prestatzera: 0 balantze energetikoko eraikinak (energia, ura eta hondakinak).

HIRI EKO-ADIMENTSUA

Hiri eko-adimendun proposamen bat diseinatzeari ekin zaio ikuspuntu estrategiko batetik. Alde batetik hiri-ingurune eko-berritzaileak garatzea indartuz, hiriko bizi-kalitatea hobetzen lagunduko dutenak, eta aldi berean esperientzia pilotu bezala (*urban-lab*) jokatu duena, sektore desberdinen gaitasunak mobilizatu (industrialak, zerbitzuak, sektore publikoa) eta produktu eta zerbitzu berrien funtzionamenduko erakusketa-gunea (*liveshowroom*).

MINI SORKETA BANATUA

- > Esku hartu da Energia Berriztagarrien eta Energia Efizientziaren enpresa-misioan Glasgow eta Londresen.
- > Bilerak Madrilan CNE, MITYC eta APPAren.
- > Enpresei saria emateko dekretua 2011an zehar irtengo dela aurreikusten da.

ARRISKU ENERGETIKOKO ERREGIOAK: ENPRESA AUKERAK

> **Zer da ReRisk (*Regions at Risk of Energy Poverty*)?** Proiektu honek europar erregioen zaurgarritasuna aztertzen du energia-prezioak gehitzearen aurrean, eta gomendio politikoak ematen ditu erronka horri aurre egiteko.

> **AZKEN EMAITZEN AURKEZPENA.** ReRisk proiektua ESPON saioaren esparruan aurkeztu zen, barne- eta kanpo-mugetan zeharreko lankidetzaren onuretan zentratutik. [2010eko 4-7, Brusela, Open Days; eta 2010eko azaroaren 17-18an, Lieja, ESPON mintegia]

> **ONDORIOAK.** Ondorioen artean nabarmentzen du politikek energia-efizientziara, ingurumenaren babesa eta arriskuak prebenitzera eta energia berriztagarriak hedatzera bideraturik egon behar dutela, eta horrek agerian uzten du nolako ahalegina dagoen egiteko eta gai horietako enpresentzat negozioa garatzeko aukerak zabaltzen ditu. Proiektua Innobasquek lideratu du eta TECNALIAk koordinatu, eta gainera NORDREGIO (Nordic Center for Spatial Development), eta NTUA (National Technical University of Athens) ditu bazkide. [IKUS ERANSKINA: *Euskadi energia-erronkaren aurrean*]

Dinamikaren asmoak

- > Lidergo Teknologiko Lehiakorreko marka bat sortu.
- > Oreka bilatu hezkuntza ekonomikoak, enplegua eta ingurumen-inpaktuaren artean. (Garapen Iraunkorra).
- > Marjinak eta errentagarritasuna hobetu inbertituriko kapitalaren gainean.



Torre Elithis, Dijon (Francia).

BALANTZE POSITIBOKO ERAIKINAK

Herrialde garatu gehienetan, eraikinak dira energia-konsumitzaile nagusietako batzuk, eta guztiaren %40 esan nahi du horrek, garraioaren ondoren. Gainera BEG-en (Berotegi Efektuaren Gasa) igorpenen %25en erantzuleak dira. Elithis Dorrea, Dijon-en (Frantzia)eraikia izan zen kontsumitzen duena baino energia gehiago sortzen duen munduko lehen eraikina.

LASTER

- ReRisk Txostenaren argitalpena eta haren hedapena.

2011 URTE ERABAKIGARRIA SEKTORE MINIEOLIKOARENTZAT

2011-2020 Energia Berriztagarrien Plan berria; esparru arautzaile eta saritzaile espezifiko bat finkatuko du instalazio minieolikoan udalerrri-araudiak erasango dituenak.



GIZARTE EFI OSASUNGARRIA DINAMIKA



Zer da?

Zehar-ekintzako proposamena osasunak eta bizi-kalitateak eskaintzen dituen beharren eta aukeren inguruan, eta gizarte aurreratu batean sistema iraunkor bat izateko premieren inguruan. Epe luzera ditugun helburuak honako hauek dira:

- > Gehiago eta hobeto bizi
- > Balio ekonomikoak sortu ingurunean
- > Gizarte-osasungintzako sistemaren iraunkortasunari lagundu.

Haietarantz aurreratzeko honako hau proposatzen dugu:

- > Helburuak lortzeko inpaktu handieneko arloetan jardutea: Janaria, zahartzea, gaixotasun kronikoak (gai honetan Eusko Jaurlaritzako Osasungintza eta Kontsumo Sailaren "Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko Estrategia" ezartzeari lagundu.
- > Bizkortu ezagutza eta lankidetzaren erreal balio-konstelazioko eragile guztien artean ekintza sortzeko, eta Euskadi oraindik aukera globalak dituzten nitxoetan kokatzeko.
- > Itunak eratu erreferentziako erregio bihurtzen lagunduko digutenak gai honetan.

ZAHARTZEA

Zahartze Baikorra. Aldi berean 3 woka landu dira (euskal hiriburuetatik bakoitzean bat) BBK, CAJA VITAL eta KUTX AFUNDAZIOA-rikiko lankidetzan. Woketan esku hartu duten 150 pertsonak baino gehiagok azpimarratu dute gertatzen ari den gizarte-aldaketa integratu beharra. Euskadi, gizarte bezala, joera hori integratzeko gai bada, balio ekonomiko eta so-

INNOBASQUEREN PAPERA

- > Inguruneak sustatu, zeinetan erakunde publiko eta pribatuak, pertsonak eta erkidegoak laguntzaile izango baitira ekimen berritzaileak definitu, garatu eta lankidetzan ezartzen.
- > Muga artean eta haietan zehar lan egin osasunaren balio-konstelazioa itxuratzen duten eragile desberdinen artean.
- > Ikuspegi desberdineko eragileen arteko hurbiltzea sustatu ideia berriak eta planteamendu berriak atzeman eta haiek abian jartzea bizkortzeko.

zial diferentzial bihurtu daitezke. Ekarpenak 7 ardatz nagusiren inguruan egin dira:

- 1) Zahartzearen kultura bat
- 2) Hezkuntza
- 3) Osasuna
- 4) Politika publikoak
- 5) Sentiberatzea eta komunikazioa
- 6) Produktu eta zerbitzu berriak
- 7) Belaunaldi arteko bizikidetzako gune berriak

[2010eko azaroaren 25] [IKUS ERANSKINA: Zahartzararen ikusmolde baikorrako baten beharra].

Housing: Zahartzea eta Etxean Artatzeko Zerbitzu Berriak. Proiektu honetako lanak hasteko aurkezpena, zeinaren helburua baita beharrezko ezagutza eraikitzea iraupen luze-ko zahartze baterako prestatutako etxeak diseinatzeko. Matia Institutu Gerontologikoak (INGEMA), IKERLNeK eta CIDEMCOK sustaturiko proiektu bat da. Innobasquek 5 lantalde jarri ditu abian adituz eratuak, zeinek identifikatu baitituzte erabakigarriak diren norbana-koaren eta ingurumenaren aldagaiak, adineko pertsonen autonomia banakoa sustatzeko, bai eta haien senideen eta zaintzaileena ere. [2010eko abenduaren 13].

OSASUNA

Pazienteen Erkidegorako Plataforma: Gaturik dago on-line plataformak izan beharko

duen jokabidearen interakzio-diseinua erabil-tzaile potentzial mota desberdinen interesei erantzuteko.

Osasun-teknologiak, 4C guneak (Conocimiento, Conexión, Confianza eta Cocreación) osasun-teknologiaren sektoreko eragileen artean, honako xede hauekin:

- > Sektoreak aurkezten dituen aukerekiko sentiberatzea.
- > Zientzialarien eta ikertzaileen arteko ezagutza, lanean ari diren lerroena eta haien arteko sinergiak bilatzea.
- > Abian dauden ikerketak industriari ezagutzea, ezarpen posiblearen azterketarako.
- > Sektorean presente dauden enpresen arteko ezagutza, produktuen eta zerbitzuen salerosketarako, eta sinergiak bilatzeko.
- > Giro egokia sortu epe luzeagora egingo diren etorkizuneko interakzioetarako.

ELIKADURA

Lanen hasiera "Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntzarako Laborategia"n EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN, LURRALDE ANTOLAKUNTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILEKO sozietateekin batera. Laborategi horren helburua izango da berrikuntzako proiektuak identifikatu eta abian jartzea, zeinek lagunduko baitute gaitasunak, lehiakortasuna, enplegua eta kanpo-irudia hobetzen eta enpresen arteko lankidetzakultura sortzen.



LASTER

- PAZIENTE KRONIKOEN EUSKAL ERKIDEGOA: plataformaren BETA bertsioa gizarteratzea (2011ko otsaila).
- BIOCAT: Biocatekin topaketa KIC-en (Knowledge and Innovation Community) lankidetzakideak arakatzeko Berrikuntza eta Teknologiako Europar Institutuko osasun/bizitza-zientzietan (IET).
- ZAHARTZEA: Baikorki zahartzen Wokaren Ondorio-txostena.
- HOUSING: "Housing: Zahartzea eta Etxean Artatzeko Zerbitzu Berriak" Proiektuaren 2. Jardunaldia.

EKINTZAILETZA INDARTZEAREN DINAMIKA



PRESENTZIA GLOBALEKO ENPRESA BERRITZAILEEN (PGEB) GARAPENA

Zer dira PGEBak?

- > Enpresak dira (ez proiektuak)
- > Izaera berritzailekoak: haien salmentak gutxienez azken hiru urteotan merkatuan sartutako produktuen baitan daude % 25ean.
- > Nazioartekotutakoak: beren salmenten %25 edo gehiago esportatzen dute.
- > Hazkuntza lasterrekoak: enplegatuen kopurua %20an baino gehiagoan hazi da hiru urtetan.

- Innobasquek dagoeneko eraturik dauden eta hazkuntza-gaitasuna duten enpresentzako bizkortze- eta aberaste-prozesu bat sortu du.

- Garapen-barruti hori errazten duten programa espezifikoeetan lankide gara (Connect, Ekarken...)



2010EAN 35 PROIEKTU ERREGISTRATU DITUGU eta horietatik 11 irekita daude (TOBERA prozesuan deitzen dugunean), eta 4 bideratu dira EAEko ekintzaitzaren ekosistemarantz. 8 baztertu dira. 12 geratzen dira sustatzaileek berek aztertze fasean haien prozesua hasteko.

PROIEKTUEN EGOERA TOBERAN

- > 4 Proiektu Atariko Kontraste Taldeko lehen bilera noiz egingo zain: Eko-etxe, Aerovisión, Orloga eta Idm Test.

INNOBASQUEREN JARRERA HARTZEA EKINTZAILETZAREN INGURUAN

Innobasqueren asteartea (azaroak 16) ekintzaitzaren inguruan jarrera-hartzearen aurkezpena.



- > 2 proiektu beren lehen kontraste-taldearen hasieran: *Virtual/Ware* eta *Kera-Coat*.
- > *Sustainable Reference* Proiektua lehen Kontraste Taldearen ondoren hurrengo etapara igaroko da.
- > *IP Systems* Proiektua bigarren kontraste-taldearen ondoren hurrengo etapara igaroko da.
- > *HIB S* Concept* Proiektua talde sustatzailean eratzen.
- > *Unicorp* Proiektua aberaste-fasean dago Innobasqueren Sarearekin.
- > Anboto Proiektua bere *Advisory Group*-aren eratze-fasean.

ATARIKO ONDORIOAK

HIB S Concept* enpresa 2011an zehar lagundu ahal izango dugun lehen PGEB bezala kokatzen da.

EKINTZAILETZA WOKA

2010eko urriaren 18an, SPRIK antolatutako Ekintzaitzaren Foro Nazionalaren esparruan, Innobasquek Woka Gune bat antolatu zuen eta bertan nazioko ekintzaitza-eragileek esku hartu zuten, ekintzaitza hobetzeko gogoeta eginez.



LAUGARREN SEKTOREA DINAMIKA

LAUGARREN SEKTOREAK EUSKADIN DUEN EGOERAREN AZTERKETA

Diagnostikoaren bigarren fasea, horretarako unibertsitate arteko lantalde bat eratu delarik Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHUren artean. Hiru unibertsitateen aldez aurretiko lanaren ondoren jarraitu beharreko lan-eskema bat eta ataza-egutegi bat diseinatu dira, honako hauei ekiteko:

- > Ardatz esanguratsuenak eta laugarren sektorearen aurrekariak.
- > EAEko erakundeek kasuen identifikazioa (barruti desberdinetako pertsona adituekin elkarriketak).
- > Nazioarteko jarduerak onak txertatzea.



PIRAMIDEAREN OINARRIA

- > Euskadiren ikuspegitik Piramidearen Oinarriaren berrikuntza-ahalmenari buruzko diagnostikoa lantze- eta idazte-prozesuan gaude orain. Fase honetan EUSTATen laguntza jaso da, zeinek landu baitu ad-hoc informazioa, bai eta 29 galde-zerrenda ere Euskadiko 29 eragile esanguratsuk betetako datuez ere; 12 elkarriketa sakon alor horretan erreferente diren pertsoneri; kontraste-bilera bat egin zen Innobasqueren POko b-Taldearekin (Laugarren Sektorearen Nazioartekotzea). Azterlanak POko negozio sarkarien 10 adibide praktikoa ditu bere baitan.
- > PO programaren esparruan, Innobasquek "Emitza Kontu Hirukoitzean balioa sortzen duten Piramidearen Oinarriko negozio-estrategiak" aditu-bileran esku hartu zuen, zeina Piramidearen Oinarriko Laborategiak antolatu baitzuen. [Bartzelona, 2010eko azaroaren 25ean]

Helburua

Dinamika nonen helburua da enpresa-jarduera helburu sozialekin garatzea, lan globaleko esparru bat eskainiz, gaur egun sail horretan diharduten erakundeek gaitasunak indartuko dituen, lan globaleko ekimen berriak abiaraziz, eta haien nazioartekotzea sustatuz.



INNOVALAN: BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONAK LANEAN TXERTATZEA

- > Innovalan proiektua abian jarri da eta horrek kolektibo urritu bat lanean eta gizartearen txertatzea eragingo du enplegua eta babes soziala sortzearen beharra estaltzearen birtartez horren premia baitute buruko gaixotasun kronikoa dutenek.
- > Innobasquek gainera honako lankideak ditu proiektuak: Osakidetzaeren Bizkaiko Buru Osasunaren Sarea, Bizkaiko Teknologia Elkarteak, Lantegi Batuak, Eragintza, Argia Fundazioa, Bizitegi, Higar Izarra, Emaus eta Avifes. [2010eko abenduaren 23]

Prestakuntza-ikastaroa Piramidearen Oinarriaz eta Negozio Sarkariez:

"Balioaren nazioartekotze-estrategiak enpresentzat piramidearen oinarriarekiko berrikuntzan"



2011ko martxoaren 7 eta 8

Piramidearen Oinarriarekin negozio sarkariak garatzeko interesa duten eragileei eta enpresei **zuzendua**.

Fernando Casado eta Juliana Mutis (Piramidearen Oinarria Laborategia) eta **Paul Ortega** (Innobasque) izango da prestatzaileen lantaldea.

Ikastaroaren **helburua** da parte-hartzaileei negozio sarkarien ereduak oinarriko kontzeptu, joera, aukera eta ezaugarri partikularretan sartzen laguntzea.

Informazio gehiago:

rarnaiz@innobasque.com

OPENIDEIAK

Openideiak (lehenago "Berritzaileen Euskal Erkidegoa") hiruhileko honetan 3.185 pertsona erregistratu kopurura iritsi da. 132 lantalde aktibatu dira.

Zer da?

Lankidetzeta eta partaidetzeta-lanabesa. Erkidegoak plataforma dinamiko bat eskaintzen du. Innobasquek erakunde, publiko eta pribatu guztien eskura jartzen duena, era guztietako eronkei ezarritako berrikuntza irekia sustatzeko, zeinetan sozietate eta pertsona bezala, geure eza-gutzaren eta konpromisoaren ekarpena egin baitezakegu, garapen ekonomiko, sozial eta gizatiarreko barruti guztiekiko harremanean (ingurumena, enpresak, teknologia, gizartea, kultura). Erkidegoak aukera ematen du berrikuntza-proposamen irekiak dinamizatzeko erakunde guztietan, zeren eta eskura dagoen lanabesa baita gure bazkide guztientzat eta estrategia-ekintzako lerro guztietarantz bideraturik hedatzen baita.

www.openideiak.com

> **GOMENDIO KATEA.** Urriaren 27an egin zen Bilboko La Alhóndigan "Gomendio Katea" proiektuaren aurkezpena, Bilboko Alkatea, Iñaki Azkuna, protagonista zela eta bertan 200 pertsona baino gehiago izanik. "Gomendio katea" lankidetzako proiektu



openideiak

bat da pertsona berritzaileen artean gomendioa erabiltzen duena eguneroko bizitza era berritzaile batean hartzen duten konektaturiko pertsonen katea baten eragile bezala.

> Gure gizartean emari sortzaile eta berritzaile izugarri bat dagoela sinetsirik, aurkitu eta indartu beharrekoa, ekimen hau plazaratzea erabaki genuen edozein bizi-ingurunetan dauden pertsonen jarrera berritzailea identifi-

katu, aitortu eta mobilizatu, eta Berritzaileen Euskal Erkidegoan txertatzeko.

> Proiektu bizi bat da eta mailaz maila haziz joango da. Proiektu horri buruzko informazio guztia (kateak, liburua, bideoak, tab.) Openideiak blogeko sail berezi batean jasota dago.

> **BLOG BERRIA.** Urriaren plazaratu zen Openideiak blog berria. Blog horren helburua da Openideiak bazkideei jakinaraztea funtzionaltasun berriak eta haiekin zerikusia duten gertaera eta proiektuak.

> Openideiak talde berriak, "**Innobasqueren Astearteak**"-i eskainiak, zuen eskura jartzen ditu ezagutzaren zirkuitu honetako saio desberdinetan emandako bideoak eta liburuak, zeinak Euskadiko herri desberdinetan garatzen baitira, eta gainera Innobasqueren agenda aurkezten du gure herrialdeko berrikuntzaren aktualitatea idazten dutenen eskutik.

> **TEDxBilbo** plazaratu zuen bere erronka sari eta guzti. Nahiz eta oraindik ez lortu espero zen erantzuna, baina jasotako proposamenen kalitate handia ikusita, parte-hartzaile bakoitzari joan den azaroaren 27ko TEDxBilbo gertaerarako gonbidapen bat opari egitea erabaki zuen. Ez dute itxiztat ematen beren logoarekin batera joango den irudi baten bilaketa-prozesua eta beren site berekiaren bitartez (TEDxBilbao.com) proposamen berriak bidaltzera gonbidatzen dute.

> Plataformaren irudi berria Openideiak markara egokitzen jarraitzen dugu.

Inicio Mercado de Ideas Grupos 2.0 Blogs Innovadores Openideiak-Blog

openideiak

Conecta Conecta

Regístrate Clave olvidada

Gana un premio Haz una propuesta Únete y colabora Introduce texto y/o etiq. Buscar

Los Martes de Innobasque

Este grupo recogerá toda la documentación relativa a

Para participar el grupo Los Martes de Innobasque debes estar registrado.
Regístrate o entra

Creado por: Carolina Rubio Miner
Últimos miembros: 11

Unirse al grupo

Encuestas del Grupo

Discusión del grupo

Miembros del grupo

Grupo de Álbumes

Páginas del grupo

Blog del grupo

Videos

Últimos miembros

Los Martes de Innobasque

Innobasqueren astearteak

Los martes de Innobasque

Los martes de Innobasque

Cita mensual de Innobasque que convoca a los protagonistas de la innovación en un foro divulgativo y abierto para situar a la innovación vasca en el centro de la mirada de las personas, las organizaciones y los medios de comunicación.

Estos martes son un circuito de conocimiento que se desarrollará en diversas localidades de Euskadi, y presentará la agenda de Innobasque de la mano de quienes escriben la actualidad de la innovación de nuestro país.

A continuación adjuntamos la documentación (videos, libros, presentaciones) de cada Martes:

INGURUNEAK: lankidetzak garatzen

Zer da?

Berrikuntza pertsonengan dago, eta haiek garatzen dituzten gaitasunak dira gizartearen balio nagusia. Berrikuntza, beraz, prozesu hedatu bat da, enpresetan, era guztietako erakundeetan, instituzio publiko eta pribatuetan, kulturean, hirietako bizitzan... inpaktua duena. Gure lanaren oinarritzko atal bat (gizarteko) pertsonen gaitasunak garatzen laguntzea da bultzatzen ari garen Eraldaketarako, oinarri errealeta iraunkorrak dituen euskarriarekin. Ildo horretatik, izaera deberdinetako ekimenak garatzen ditugu, aurrez deskribaturiko dinamikak osatzen dituztenak.

Adimen Emozionala partzuergoa

Bere bidetik doaz:

> **Instagi Programa Esperimental.** 7 erakunde ari dira lanean argindar-sektoreko ETEetako kudeatzaileei zuzenduriko programa esperimentalaren diseinu eta garapenean, ezagutzan eta ingurunea eta bezeroekiko harremanean zentratuturik, kudeaketa-dinamika berrien garapenean oinarri bezala.

> **"Ekipoen Prestakuntza"** Gainbegiratze Taldea kontsultorentzat, AZUCENA VEGA Coach-ak sustaturik eta SABINO AYESTARAN irakasleak dinamizaturik eta bertan 10 erakundek esku hartu dute.

Transferentzia ekintzak eta ezagutzen ezarpena.

> **World Emozioa 2010**en ARRAKASTA emozioaren Egunaren esparruan. CIEko 40 pertsona lankide izan dira gertaera pres-

tatzen. 150 pertsonak esku hartu zuten [Bilbo, 2010eko abenduaren 2].

> **"Barnetegi Emozionala"** 1. saila plazaratzea CIEko ekipo batek sustatua (AYLA SE-ARCHING, BANPRO, ESCUELA LA RISA INTELIGENTE, HABLA Y DISFRUTA, HZ CONSULTORIA, IDEO CONSULTORES, INNOBASQUE, LAN EKINTZA, PMP ETA SYCOM TRAINING SYSTEMS) Lan Ekintzarekin. Urriaren 8ko aurkezpenaren ondoren 5 tailer garatu dira azarotik hasita. ETEetako eta Bilboko dendetako 24 zuzendarik eta kudeatzailek esku hartu dute.

> Berrikuntzaren sustatzaile bezala pertsonen papera dinamizatzen eta hedatzen jarraitzen dugu **Gizarte Sarean** ahalmenaz baliatuz.

- **Facebook**-en, jarraitzaileen kopurua 1.751ekoa da.

LERRO IREKIAK

- Hizkuntzen Industria
- Kudeaketa aurreratuko kasuak
- Adimen Emozionalaren Partzuergoa
- Itaka Foroa

BA AL ZENEKIEN...

- Adimen Emozionalaren Partzuergoa, CIE/AEP, 60 erakundek eta 100 pertsonak baino gehiagok eratzen dute eta garapen pertsonala eta profesionala binomioan berrikuntza ikertzen, esperimendatzen eta bultzatzen lan egiten du, ekipoen errendimendu hobea eraginez eta erakundeak eraldatuz.

- CIE/AEPk sendotu egin du 2010ean bere ikusmoldea: 4 dimentsio elkarlotu:

- Desberdin pentsatu gogoa irekitzea praktikatzu eta geure buruari baimena emanez horretarako.
- Desberdin sentitu emozioak egoki kudeatuz eta plano baikorrean kokatzen ikasiz edozein egoera aukera bihurtuz.
- Desberdin egin (kooperEkintza) taldean lan eginez eta erakunde eta pertsona bakoitzaren berezitasunetik eta desberdintasunetik ahalik eta ahalmen handiena ateratzeko, eta lankidetzan arituz ekipoan osagarritasuna sortzeko.
- Desberdin komunikatu (komunikEkintza), geure burua eta besteak entzuten ikasiz, pentsatzen, sentitzen eta komunikatzen duguna egoki adierazi gauzak gerta daitezzen.

Nolakoan berritzearen aldeko apustua egiten dugu. Berrikuntza eta eraldaketa ez dira gertaera bat prozesu bat baizik, eta zimentarria dira berrikuntzaren kultura gizartearen heda dadin.

LASTER

- **Emolaborategia:** hiru tailer monografiko CIEAEPko kideentzat konpetentzia sozioemozionalei buruz eta haiek balioari eta aplikagarritasunari egiten dioten ekarpenari buruz.

- E.factory.coop:

- Unibertsitate-Enpresa Ikerketa Proiektua abian jartzeko 'Berrikuntza Ekipoak antolatze-garapenerako lanabes gisa' UPV/EHUko Psikologiako Departamenduarekiko lankidetzan.
- Instagi (6 erakunde) programa esperimentalaren lehen jarduna plazaratzea.
- "Kudeaketa emozionala ekintzan" argitalpena (2011ko apirilaren 12an aurkeztua).



BI KASU BERRI

Azken hiruhilekoan, kudeaketa aurreratuko bi kasu berri daude eskuragarri. Haietan, Lizarra ikastolak eta Txingudi ikastolak beren hizkuntza-proiektua eta euskararen normalizazioa nola burutu dituzten gakoak azaltzen dizkigute.

Bi kasuetan uste dute hizkuntzak ikastea ez dela marketing kontu bat, helburua komunikazioa da, eta hori lortzeko metodologia eta preskak ezinbestekoak dira. Bestalde, beharrezko ikusten dute hezkuntza-erkidego osoak esku hartzea eta konpromisoak hartzea, bakoitzak bere neurrian, alde batera utzi gabe

ikasgelaren barrutia, ikastola, jolastokia, jantokia, familia, gizartea... beste barruti batzuetan ere zentratzen dira. Horregatik uste dute funtsezkoa dela ikasgelatik kanpora euskara erabiltzeko aukerak sortzea. Eta Lizarra ikastolak eta Txingudi ikastolak lorpen nabariak izatea lortu badute egiten duten horretan sinesten dutelako da eta hori lortzeko suhertasunez lan egiten dutelako.

(Bisitatu casosinnobasque.com eta deskargatu).



PERTSONEN ROLA EKONOMIA IREKIAN

Tailerra: Pertsonak zer rol duten ekonomia irekian. Une honetan gizarte konplexu batean bizi gara eta bertan belaunaldi desberdinak "metatzen" gara toki beretan, laneko, aisiako edo familia-bizitzako tokian izan edo (ez-tokian). Denborak konprimitzen ari dira eta aldaketak gero eta epe laburragoetan gertatzen dira. Gune berean ikusmolde desberdinak, botere desberdinak eta anbizio desberdinak dira bizikide. Ekonomia irekiak egungo gizarteko aldaketa

batzuk interpretatzen ditu eta enpresek konfiantza izan beharreko input bihurtzen ditu baldin eta pertsonak bere lehiakortasunaren oinarri izatea nahi bada. Horretarako aurrena ekonomia irekiaren ezaugarrietako batzuk aurkeztu ziren, Mondragon Unibertsitateak burututako ikerketa-proiektu batean 'Ekonomia Irekia EOIko 20+20' eta gero hiru kasu aurkeztu ziren. (NAIDER, KOOPERA ETA TOURISM REVOLUTION ECOSYSTEM).

Gailurreko 10 deskargak

1. Silverspace >
Sormena eta 'know-how'
2. Lantegi Batuak >
%100 gai direnak
3. Orbea >
Bizikletak fabrikatu eta saltzea.
4. Guascor Taldea >
Berrikuntzaren aldeko apustua eta ezarpen berrien eta nitxo berrien bilaketa merkatuan
5. Ega Master >
Berrikuntza eta erantzukizun soziala eskutik
6. CTI Soft >
Hazkuntza sektore aldakor batean
7. BBK >
Tradizioa eta berrikuntza finantza-sektorean
8. Moyua Eraikuntzak >
Neurri, konplexutasun eta ikusgarritasun handiko obra zibilak egikaritzen espezializatutako enpresa.
9. Bergarako Udala >
Herria eta Udala euskaraz
10. Makina Erremintaren Institutua >
Euskararentzako erremintak.


LASTER

- Nazioarte-lankidetzako lehen azterlan tematikoa bere baitan honako kasuak dituena: ESI, Geyser-Dastech, HINE, Orkli, Rinder eta Tamoin.
- Dualia kasua.

III. Konpromisoa Euskadi eraginkor batekin

Zer da?

Bere helburua da I+G+b-ren ekarpena hobetzen erraztea eta kapital ekonomiko/gizatiarraren kudeaketan eraginkortasuna gehitzea epe laburreko emaitzekin, krisi globalaren ingurunera egokiturik. Estrategia-ekintzako hirugarren lerro horretan Innobasquek honako jarduerak integratzen ditu: INSIDI, RVCTren dinamizazioa, Diplomazia Berritzailea, Innobasque, gehiago gutxiagorekin, eta Innocampus.



I+G+b Sistemaren (INSIDI) Nazioartekotzea

> I+G+b jarduera gehitu eta haren eraginkortasuna euskal instituzioen funts mugatuak kontuan izanik eta haien zuzeneko harremana I+G+b jardueraren eta gizarte-aurrerapenaren artean:

- Lehiakortasun gehiago;
- Enplegu gehiago;
- Gizarte-oreka gehiago;
- Kosmopolitagoa (nazioartekoa)

ERA-NET

ERA-NET Programa lanabes bat da, gure Enpresen IG jarduerak nazioartekotzen laguntzen duena.

ERA-NET proiektuen tipologiak aukera ematen die euskal enpresei I+G jarduerak garatzeko beste herrialde batzuetako eragileetara lankidetzan. Hauek dira:

- > Merkatuaren aplikaziotik hurbileko proiektuak.
- > Proposamenetarako prozedura sinplea.

Lortutako emaitzak

ERA-NET bakoitzak

2010eko Deialdian (laburpena):

| ERA-NET | AURKEZTUTAKO ENPRESEN KOP. | ONARTUTAKO PROIEKTUEN KOP. |
|-------------|----------------------------|----------------------------|
| MANUNET | 55 | 9 |
| MATERA | 7 | 1 |
| MNT-ERA.NET | 11 | 2 |
| EURONANOMED | 2 | 0 |
| ETB-PRO | 1 | 1 |
| SMARTGRIDS | 1 | 5 |
| LEAD ERA | 4 | 18 |

Hau da azpimarratzekoa:

- > Euskal enpresen esku-hartze handia, ETEena batik bat.
- > ERA-NET Proiektuen arrakasta-tasa (1/3) askoz handiagoa da 7PM-ko (1/10) "Cooperación" Programarena baino eta "Capacities" ETEren Programarena baino ere. (1/6).

EMAITZEN HEDATZE JARDUNALDIA:

Euskal enpresek europar programetan lortutako inpaktua eta parte-hartzearen emaitzak erakusteko antolatzen da. Jardunaldian ERA-NETeko lau koordinatzaileen presentzia izan zen, eta haiek lankidetzan transnazioko proiektuetan esku hartzeak enpresa txiki eta ertainarentzako eskaintzen dituzten aukerak azaldu zituzten bereziki.

Orobat, orientabideak eskaini ziren ERA-NET proposamenen arrakasta-gakoez, Euskadin proiektuak finantzatzeko-prozesuaz eta EEN, Enterprise Europe Network sareak eskaintzen dituen laguntza-zerbitzuez eta -lanabesez. [2010eko azaroaren 19].

ABIAN DAUDEN EUROPAR PROIEKTUAK

ERA-NETak:

- Manunet (Fabrikazio Teknologia)
- Ernest (Turismo Iraunkorra)
- Smartgrids (Sare Elektriko Adimendunak)
- Euronanomed (Nanomedikuntza)
- Matera (Materialak)
- ETB-PRO (Bioteknologia)
- MNT II (mikro eta nanoteknologia)
- Lead ERA (Europarako merkatu liderrak)

ESPON:

- ReRisk Proiektua



LASTER

- 2011ko deialdian irekiera honako ERA-NETetan: MANUNET, MNT-ERA.NET, EURONANOMED, SMARTGRIDS, LEAD ERA.
- I+G+b Nazioarte Proiektuen Kudeaketan Ikastaro Aurreratua Europar Esparruko VII. Programan proiektuak prestatu eta kudeatzeko. [Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 21].

VII. ESPARRU PROGRAMA

Emaitzen monitorizazioa 2007-2010 aldiaren analisia

PARTAIDETZA ARRAKASTA

Innobasquek egindako txostenak berretsi egiten du 2007-2010 aldiko I+G-eko VII. Europar Esparru Programako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemako Eragileen parte-hartzearen arrakasta.

Gainditu egin dira Europako I+G+b Koaderno Estrategikoan ezarritako itzaropenak. Euskadik 190,34 M€-ko itzulkin globala lortu du, proiektu finantzatutan euskal erakundeen 606 parte-hartzearekin. Euskal parte-hartzea %45 hazi da VI. Esparru Programan zehar lortutako itzulkinetikiko (131 M€) eta, gainera, % 5ean gainditzen ditu Koaderno Estrategikoan ezarritako helburuak (180 M€).

ARRAKASTA HANDIENKO PROGRAMAK


Tema/azpiprogramak parte-hartzearen helburu zatikoak bete egiten dira NMP, Energia, ICT, Ingurumena, Espazioa, Ideiak, Pertsonak eta Gaitasunak gaietan (ETEn Mesederako Ikerketako azpiprograma da salbuespen bakarra).

- > Gure parte-hartzearen hazkuntza esanguratsuen honako gai/azpiprograma haue-tan nabari da:
 - Pertsonak (helburuak hirukoiztu egin ditu)
 - Ideiak (helburuak bikoiztu egin ditu)
 - NMP eta Ikerketa Azpiegiturak.

NABARMENTZEKOA

Euskal Eragile askoren jarrera-hartzea esaterako JYI eta PPP ekimen berrietan. Nabarmentzekoak dira JTI ARTEMIS eta PPP *Factories of the Future eta Energy Efficient Buildings* proiektuetako parte-hartzeak.

ENPRESEN PARTE-HARTZEA
- partaideen %50 ETEenak dira.



- Enpresen partaidetza batez ere BMP, Aeronautika eta ICTn biltzen da.
- Euskal enpresek lortutako itzulkinak (37, 12 M€) ez ditu lortzen Koaderno estrategikoan ezarritako helburuak (60M€).

TEKNOLOGIA ZENTROAK

RVCTI dagokionez, teknologia-elkartegien partaidetza %49 da lotutako itzulkin guztizkotik eta %46 euskal partaidetzetatik aldi horretan. Euskal Herriko unibertsitatea ere presente dago europar proiektuetan (guztizko itzulkinaren %7), bai eta CIC batzuke ere.

ENPRESEN PARTE-HARTZEA

Datu hauek erakusten dute beharrezkoa dela enpresa berrien parte-hartzea bultzatzen jarraitzea, batez ere tokiko edo nazio-ko I+G proiektuetan esperientzia dutenena, edo lankidetzatransnasionaleko proiektuetan dagoeneko esku hartu dutenena (ERA-NET, EKA, tab.) prestakuntza-ekintzen bitartez (dagoeneko abian daudenak), Enpresa-Teknologia Elkartegien lankidetzat sustatzearen bidez, edo VII. PEan partaidetza handiko enpresen aldetik ETEen traxzioa erraztuko duten jarduerena.

VII. ESPARRU PROGRAMA MONITORIZATZEA

I+G+b-aren nazioartekotzean aurrera egiteko diagnostiko zehatza behar da gure eragile zientifiko teknologikoen jarrera-hartzearen mailarena eta industriarena nazioarteko agertokian. Diagnostiko hori burutzeko moduetako bat euskal eragileen parte-hartzea monitorizatzea da I+G+b europar proiektuetan. Xede horretarako, Innobasquek "I+G+b Europar Proiektuetan Euskal Partaidetzaren Behatokia" kudeatzen du, parte-hartze hori denbora errealean neurtzen duen lanabesa. Horregatik ekin genion "Euskal I+G+b Estrategia Koadernoan"ren helburuak betetzearen jarraipenari.

> Koaderno horrek finkatzen ditu Euskadira itzulitako funtsak %37an gehitzea lehen aldirako (2007-2010), eta %60an bigarrenerako (2011-2013), VI. Esparru Programarekiko.

EEN

EEN Basque *Enterprise Europe Network* (VIL PE) Sarearen osagai da. EENek informazio eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu Europan dauden politikekiko eta negozio-aukerekiko, bai eta laguntza ere teknologia-transferentzia prozesuetan eta I+G+b-aren finantzaziorako europar programen sarbiderako. Sarea presente dago Euskadin SPRI, BAI, Bilboko Merkataritza Ganbera, Arabako Ganbera, Gipuzkoako Ganbera, Bizkaiko Foru Aldundia eta Innobasquek eratutako Partzuergo baten bitartez.

ETE Programak. Jardunaldi berriemailea Europar Batzordearen FP7-SME-2011 deialdiaren aukerez eta onurez, ETEei zuzendua, bai eta ETEen elkarteei, erakusketa-deialdiaren berritasunarekin. Jardunaldian zehar jakinarazi ziren programa horretan 2007-2009 aldiaren lortutako emaitzak, eta 2 jarduera on azaldu ziren. VII. PEaren ETEen kudeaketa batzordea, TECNALIA, IK4, INNOBASQUE eta SPRI izan ziren partaideak. [Bizkaiko Teknologia Elkartegia, 2010eko urriaren 15]



Gida Teknologiaren eta Emaitzen Ustiapenaren

Transferentziarako. Online gisa hau argitaratu da Innobasqueren 5 b-taldea burutako lanaren fruitu bezala. Euskal Herriko EEN Sareko kudeatzaile-betekizunean SPRIk abian jarri zuen I+G-eko Emaitzen Ustiapeneko tailerra enpresei ahalik eta era praktikoenean lanabes desberdinak ezagutarazteko xedearekin, bai eta I+Geko emaitzen ustiapena laguntzeko ereduak ere. (hemen deskarga daiteke: <http://guia-transferencia-resultados.innobasque.wikispaces.net/>).

Zientzia, Teknologia Berrikuntza Euskal sarearen dinamizazioa (ZTBES)

Euskal eragile teknologikoen balio-eskaintza kohesionatzen eta hobereentzen laguntzea du **xede**, eta irmoki bideratzea euskal ekoizpen-ehuna garatzera. Hartarako, erraztu egiten dugu lotura eskaintza eta eskari teknologikoen artean ekimen estrategiko, zientufiko-teknologiko berriak sustatuz, Sarearen ahalmenak sozializatzea eta hedatzea lagunduz, ikuspen estrategikoaren ekarpena eginez enpresa/instituzioen erabakiak hartzerakoan, eskaintzaren kohesioa lagunduz eragileen arteko lankidetzaren bitartez, eta hitz batean, eskaintza teknologikoa gure ekonomiaren behar gero eta handiago eta elkar osagarriagoetara hurbilduz. Gainera, lan jarraitua egiten dugu bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzen, Iñaki Goenaga Teknologia Elkartegien Fundazioak kudeaturiko beka-programa zabal baten bitartez eta gazteentzako hedatze- eta sozializatzeko ekimen espezifikoaren bitartez.

IG-TEF Iñaki Goenaga Teknologia Zentron Fundazioa

2.000.000€ IKERTZAILEAK PRESTATZEKO

2010ean Iñaki Goenaga Fundazioak 2.000.000€ esleitu ditu ikertzaileak prestatzeko urteroko bere beka-programaren bitartez. 109 postu eskaini dira, eta haietatik 70 bete dira, hau da, eskainitako beketatik %64. Horrek esan nahi du gehikuntza %14koa izan dela aurreko aldiatiko batez bestekoarekin alderatuta (%50).

BEKAK EMATE EKITALDIA

Ongietorri egin zitzaizen Fundazioaren beka-baten bat izan zuten 70 gazteei 2010ean. Egun horretan bertan IG-TEF Patronatu-bilera izan zen eta bertan 2011rako Kudeaketa Plana eta Aurrekontua onartu ziren. [2010eko azaroaren 29, Donostiako Zientziaren Kutxagunea].

KUALIFIKAZIO HANDIKO PERTSONEN (KHP) AZTERLANA EUSKADI 2010

Online lanabes baten bitartez KHPak atzema-tearen urteroko bilakaeraren jarraipena abian jarri da. Ikerketa horren helburua hau da: I+G+b-ko alorretan euskal enpresek eta instituzioek kontratatutako eta beste erregio edo herrialdeetatik datozen Kualifikazio Handiko Pertsonen balioespina eta asetasuna eza-gutzea. Gaia Ikerketa eta Kontsultoretza aholkularitza teknikoarekin garatzen da.

IKERTZAILEEN MUGIKORTASUNAREN GIDA
Euskadira etortzerakoan ikertzaileek eta teknologiek praktikan aurkitzen dituzten ozto-



poak gainditzen laguntzeko lanabes bat da, eta ikertzaile-karrera garatzeko ingurune aldekoago bat sortzen laguntzen duena, eta nazioarteko eta sektorearteko mugikortasuna errazten duena. FECYTEK landutako mugikortasun-gidarentzako osagarri berriemalle bat da, Euskal Herriko tokiko eta erregioko berezitasunak bere baitan dituena, eta Bizkaia: xederen laguntzarekin lantzen dena. Gida honek hau eskainiko du:

- > Informazio administratiboa (bisatuak, zergak, etab.);
- > Informazio profesionala (Euskadiko ikerketa, etab.)
- > Informazio praktikoa (etxebizitza, medikulaguntza, hezkuntza-sistema, etab.)
- > Beste autonomia erkidegoetako mugikortasun-zentron bitarteko laguntza
- > Postu hutsen iragarkiak eta Europako mugikortasun-programei buruzko informazioa.
- > Bisatu zientifikoak: enpresen eskura jartzen du bisatu zientifikorako informazioa (Europar Batzordeak garatua) Europako Batasunaren barrurantz ikertzaileen eta teknologoen mugikortasuna errazteko.

The Industry of Science 2010 [INEUSTAR]

Ineustar-ek (Asociación Española de la Industria de la Ciencia) koordinatu du Espainiako Zientziaren Industriari buruzko separata MITen Technology Reviewek arestian argitaratua. [2010 Azaroa, ICEXen ekimen bat. Hemen dago eskura: technologyreview.com/microsites/spain/ios/docs/Spain_IOS.pdf]

Industrializazioa eta produktu berrien merkaturatzea

Prototipo mailan garatutako produktu berrien ideiekin erakundeei laguntzeko helburuarekin diseinatutako metodologia bat plazaratzea, produktua industrializatu eta merkaturatzeko. Metodologia hori gidan jaso da "produktu berrien industrializazioa eta merkaturatzea" izenpean, eta bertan aipatzen dira kontuan hartu beharreko alderdi desberdinak produktu berrien definizio, industrializazio- eta merkaturatzean, 7 bat faseko ibilbide batean gauzatzen dena: Txekeoa, Birdefinizioa, Egiaztapena, Plangintza eta Garapena, Horniketa, Bukatzea eta Jarraipena [GIPUZKOA BERRITZEN, 2010eko urriak 8].

LASTER

- Lantalde bat abian jarri da FCT-Igaren 2011ko deialdiak definitzeko eta haiek ikasketa berrietara eta indarreko legeriara egokitzeko.
- Gaitasun profesionalen garatze-programa bat abian jartzea bekaadunentzat Adimen Emozionalaren Partzuergoarekiko lankidetzan.
- Kualifikazio Handiko Pertsonalaren Azterlanaren Aurkezpena.
- Euskal Herriko Mugikortasun Gidaren aurkezpena.

2010EAN

1

INGURUNEAN LERROKATUAK: GARAPEN ETA HAZKUNTZA IRAUNKORREKO EREDU BAT AKTIBATUZ

Makrojoera globalekin ari gara lanean (haiek identifikatu eta haiekin lerrokatzen gara):

- > Iraunkortasuna
- > Garapen ekonomikoa
- > Garapen soziala
- > Osasuna eta Bizi Kalitatea
- > Agertoki berriak

OPENTRIC (irekiak eta zentratuak) metodologia propio bat garatu eta ezartzen dugu hura hedatzeko, partaidetzara irekiak eta erronketan zentratua dago.

4 eraldaketa dinamikaren garapenari ekiten diogu:

- > Ekonomia Eko-Berritzailea
- > Gizarte Efi-Osasungarria
- > Ekintzailtza Indartzea
- > Laugarren Sektorea (ekonomia soziala)

2

PCTI 2015 ETA BERRIKUNTZA POLITIKA GAKOETAN

Innobasquek Berrikuntzako Euskal Sistemaren lehen kanpo-ebaluazioa gidatu du, OCDEk garatua, izan ere erakunde horrek definitzen baitu nazioarteko estandarra (33 estatuk berretsia). Azterlan horrek berrikuntzaren zehar-lerrotasuneko ekarpen baten ekarpena egiten du ahalik eta maila instituzional handiengan txertatuz, eta Sistemaren beraren sortzaileen egiletza du, Berrikuntzaren Euskal Sistemaren ahots kualifikatua ordezkatzan duten 49 pertsonarena, eta era guztiz berezian Eusko Jaurlaritza (berarekin adostu da abian jartzea, garatzea eta finantzatzea). "OCDE Azterlana Euskal Herriko Erregio Berrikuntzari buruzkoak" aurretiazko azterlanen estandarren maila jaso duenez gero, Euskadi erreferentzia gisa sartu da "Berrikuntza eta Erregio Politiken Txostenean" duen sakontasunarengatik.

3

PCTI 2015 ETA BERRIKUNTZA POLITIKA GAKOETAN

Innobasquek koordinatu eta gainbegiratu egiten du PCTI 2015 lantze-prozesua, gure geroa eraikitzen gidatuko duena. Helburu hauek aurreratzen dira:

1. Talentua sortzea eta hura Euskadin txertatzea aregotzea.
 2. Inbertsioaren %3ko kopurua lortzea i+G+b-an.
 3. Ezagutzaren transferentzia gehitu, ETEak hazkuntza-bideetara erakartzea bizkortuz berrikuntzaren bitartez.
- > Innobasquek 10 plan instituzionalen parte-hartzearen dinamikak gidatu ditu: Lehiakortasuna, Etxebizitza, Hezkuntza, Gizarte Berrikuntza, Gazteria... Haren garapenean 764 pertsonak esku hartu dute, 577 erakundek, 130 lan-jardunalditan (7.520 ordu), eta 23 txosten landu dira.
 - > Europako Erregio Batzordeak Subsidiarioratasuna eta Berrikuntza aztertzea esleitu dio Euskadiri. Innobasque da Lehendakariak izendatutako eragilea europar politikako estandarrek sortzeko barruti horretan: datorren 2011ko martxoaren 21ean, Erregio Batzordearen Batzarra Bilbon.

2010EAN

4

ITUN PUBLIKO-PRIBATUA ABIAN

Instituzioekin lanean ari gara:

- > **Eusko jaurlaritzako** sail desberdinekin, Lehendakariarengandik hasi eta Industria, Hezkuntza, Ingurumena edo Etxebizitzaraino. Eta SPRI Sozietate Publikoarekin: Foro Emprende, EEN sareko Euskal Nodoa, enpresentzako prestakuntza europar proiektuetan...
- > **Aldundiak:** Bizkaiko Foru Aldundia (ekintzailatza dinamikan), Gipuzkoako Foru Aldundia (batez ere Gipuzkoa Berritzen-en bitartez), eta Arabako Foru Aldundia (itun estrategikoa).
- > **Udalalal:** Eudelekin XXI mendeko Udalerria proiektuan udal-betekizuna berrikusiz

2010-2013 Lehiakortasun Planean aitoritza agerikoa Euskalit eta Orkestrarekiko itunaren emaitza bikainarena.

Unibertsitateekin konektaturik:

- > UPV-UHU: Atariko Kontrastea eta Innobasque Euskampusi atxikitzea
- > Mondragon Unibertsitatea: Bikaintasunaren Unibertsitatea proiektuaren garapena. Haren Unibertsitatea-Teknologia Zentroak-Enpresak eredia erreferentzia bezala txertatuko da 2015eko PCTIn.
- > Deustuko Unibertsitatea: MBlaren (DBS) garapena.

Eta **Openideiak**-en bitartez: hiritarrei irekitako berrikuntza-plataforma, Irekiari lotua, 3.000 pertsona baino gehiago dituena Berritzaileen Euskal Erkidegoan. %150eko hazkuntzarekin.

5

ERALDAKETA DINAMIKAK AKTIBATZEN



- > >Ekonomia Eko-Berritzailea: arlo estrategiko bezala sendotuz doa. Dinamika horren garrantzia islaturik geratuko da PCTI 2015ean.
- > Gizarte Efi-Osasangarria: pazienteen erkidegorako Plataforma bat abiarazteko proiektatua. 4C guneen diseinuaren bulkada osasungintzako teknologia sektoreko eragileen artean.
- > Ekintzailatza Indartzea: Lankidetzaprotokoloak abian jartzea 7 EIPG potentzialekin, eta lehen Advisory Board-a abiaraztea.
- > Laugarren Sektorea: Euskadiko laugarren Sektoreko partzuergoa sortzearen ateetan.

6

EUSKAL I+G+b-AREN NAZIOARTEKOTZEA: GAINDITUAK EUROPAR FINANTZAZIOAREN HELBURUAK

Euskadi kokaturik dago hirugarren autonomia-erkidego gisa **VII. Esparru Programa Europarretik** finantziazio gehiena berrartzen duena bezala. %5eko gehikuntza baino handiagoa 2007-2010 Koaderno Estrategikoaren helburuei dagokienez, eta %50 baino gehiago VI. PE-ri dagokionez.

Euskal ETEek gehitu egiten dute beren partaidetza ERA-NEtetan arrakasta-tasa handiarekin, aurkeztutako 3 proiektuetatik 1ekin.

7

BOKAZIO ZIENTIFIKO ETA TALENTUA BULTZATZEA

- > **Iñaki Goenaga Fundazioa.** Ekitaldi honetarako beka-eskariak %30ean hazi dira, 70 beka eman dira, eta 2 M€ko kopurua lortu da.
- > Monitorizatu egiten da Euskadiren balioespena beste herrialde edo erregio batzuetatik datozen Kualifikazio Handiko pertsonen aldetik, zeinak I+G+b arloetan euskal enpresek eta instituzioek kontratatuak izan baitira.
- > **First Lego League:** Euskaltelen egoitzan izan den 2010eko First Lego Leagueren arrakasta: 250 gazte baino gehiago esku hartzen dute mundu-robotikako torneoan. Gaiker -IK4 eta TRI- Tecnia dira lankide *partner* zientifiko bezala.

8

BERRIKUNTZA SOZIALIZATZEKO LANABES BERRIAK

- > **Innobasqueren Asteartea:** hileroko topaketak Innobasqueren jardueraz (8 egin dira 2010ean, eta horietan 960 pertsonak esku hartu dute). Innobasqueren Astearteak berriki hartu dute aitortza berrikuntzaren hedapeneko jardura on bezala Bankinter-en Berrikuntza Foroan.
- > **Basque Innopolis** (23 zenbaki): Berrikuntzaren astekari digitala 2.000 irakurle izatera iritsi dena, eta dagoeneko Facebook-en ere badago.
- > **Editorial Lerroa:** 12 entrega berri egin ditugu:
 - "Pertsonengan oinarrituriko Kudeaketa Dinamikak"
 - "Berrikuntza Ekipoak"
 - Liburu Berdea "2030 Berrikuntza Balioetan oinarritutako Euskal Gizarte baterantz"
 - "Berrikuntza eta ikaskuntza: politikak diseinatzeko irakaspenak"
 - Guascor taldearen Kudeaketa Aurreratuko kasuak
 - Ega-master-en Kudeaketa Aurreratuko Kasuak
 - Euskararen normalizazioko Kasu Aurreratuak: Txingudi Ikastola eta Lizarra Ikastola
 - Be in Gipuzkoa"
 - "Enpresen aberastea eta bizkortzea"
 - "Burmuina ezagutu hezkuntzako bikaintasunerako"
 - "Eguneroko Berrikuntza"
 - "Gipuzkoa Berritzen Memoria"
- > Innobasqueren eta haren bazkideen jendaurreko inpaktuaren balioaren %100 baino gehitze handiagoa. 2010erako metatutako balioak 5.500.000 euroko zenbatekoa gaitutuko du (baliokidetzaren arabera).
- > Gizarte-sareetan hazkuntza geldiezia da, Guztira 9.000 erabiltzaile baino gehiago gara.

9

1001 BAZKIDE GARA

- > 2010ean Innobasquek 1001 bazkide ditu.
- > 1.669 bazkide aktibatu dira (1.198 erakunde) beren lantaldeen bitartez.
- > 134 aurkezpen egin dira, eta haietan 12.000 pertsona baino gehiago izan dira.

2010EAN

10

2010EKO EKITALDI GARRANTZITSUAK

- > **ISPIM 2010:** Innobasque izan da ISPIM (*International Society for Professional Innovation Management*), batzarraren gonbidatzailea eta munduko enpresa-praktika berritzaileenak bildu zituen Bilbon.
- > **Astea:** 150 ekitaldi baino gehiago Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astean.
- > **Baikor zahartzen WOKA:** euskal gizartean zahartzearen erronkari aurre egiteko sozializatzeko ekimenak, 3 euskal hiriburuetan, 200 aditu bildu dituenak.
- > **World Emozioa:** Adimen Emozionalaren partzuergoaren eskutik. Innobasquek, gainera "Lan- eta antolaera-ingurunea" nodoa ere lideratu du.

11

DIPLOMAZIA BERRITZAILEA: BERRIKUNTZA, HERRIALDE MARKA

- > Nazioarteko 40 kontaktu baino gehiago 2010ean: EEBBetako Kongresuaren ordezkartzaren bisita, Mexikoko Conacytena... Innobasque kasua erreferentzia bezala planteatu da Monterreyn, Brasilen, Kolonbian, Txilen, Indian, USAn, Hungaria, Suedian, Polonian, Mexikon eta Uruguain.
- > Beste Autonomia Erkidegoekiko harremanak: Asturias, Katalunia, Andaluzia, besteak beste.

12

INNOBASQUE ZUZENDARITZA BATZORDEETAN

- Innobasquek esku hartzen du honako erakundeotako Administrazio Kontseilu eta Organoetan:
- > CVCTI (Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua)
 - > BCAM (The Basque Center for Applied Mathematics)
 - > BCBL, (The Basque Center on Cognition, Brain and Language)
 - > Euskalit,
 - > Ikerbasque,
 - > Fundación Loyola Media Berrikuntza,
 - > Iñaki Goenaga Zentro Teknologikoen Fundazioa,
 - > LeiBerri,
 - > Gipuzkoa 2020,
 - > Lehendakariaren Batzorde Aholkularia
 - > Langune.
 - > i20 (Institute for Large Scale Innovation, San Francisco).

Diplomazia Berritzailea

TOPAKETAK

CONACYT- MEXIKO

Innobasquek harrera egin zion Zientzia eta Teknologia Kontseilu Nazionalari (CONACYT) bi erakundeen artean akordioa bat sinatzeko asmoarekin. Ekintzailtza izan zen aukera gehien ikusi zitzaion arloetako bat, CONACYT eta TECHBA programen bitartez. [2010eko urriaren 19].

CRÉDIT AGRICOLE-AKITANIA

Innobasquek Crédit Agricole-Akitaniako banku frantseseko 40 Zuzendariri ongiatorri egin zien. Ikasketa Espedizio baten parte zen bisita hura eta bertan Crédit Agricoleko 130 zuzendari etorri ziren gailendutako euskal erakundeekin harremanetan jartzera. [2010eko azaroaren 15].

CIC MARGUNE-REN BATZORDE ZIENTIFIKO AHOULKULARIA

Euskal berrikuntza-sistemaren aurkezpena CIC Marguneko Batzorde Zientifiko Aholkulariari, "Establishing a New Basque Society Through Public-Private Collaboration" txostenarekin. Batzorde hori Errendimendu Handiko Fabrikazio-sektoreko europar ikertzaile gailenez osaturik dago. [2010eko azaroaren 25].



Argazkia: Pere Virgili©

NON IZAN GAREN

- >> Berrikuntza Zikloa Ezagutzaren Milian, "Gizarte Berrikuntzari" buruzko hitzaldi batekin [Gijón, 2010eko irailaren 28].
- >> VIII. Open Days (Erregioen eta Hirien Europar Astea, Europar Batzordeak antolatua), "Gizarte-koheresia krisialdietan: tokiko eta erregioko erantzun berritzaileak. Gizarte-berrikuntza eta subsidiarotasuna: Bi jarduera on". [Brusela, 2010eko urriaren 7]
- >> Errokkak Jardunaldiak: "2020 Europa, lurraldeetako gobernu adimentsurako estrategia" hitzaldia. "Gizarte-berrikuntza. Beste ekintzaile batzuk Europa Integratzailerako" [Málaga, 2010eko urriaren 8].
- >> Debegearen 25. Urteurrena, haren ospaketan esku hartuz [Eibar, 2010eko 27-29].
- >> American marshall Fellowship Programa [Madril, urriaren 29-30].
- >> XIV.aren Nazioarteko Topaketa Erizaintzako Ikerketan, "Erizaintzako ikerketa eta Berrikuntza Gizarte" hitzaldiarekin [Burgos, 2010 azaroaren 12].
- >> Clade Taldearen V. jardunaldia "jarrera berritzailea, enpresen aldaketa pertsonengandik hasita", hitzaldi markoa garatuz. [Bartzelona, 2010eko azaroaren 19].
- >> ICIL Jardunaldia. "Erresilientzia faktore estrategiko eta lehiakortasuneko bezala" "Lankidetzako berrikuntza"ri buruzko esku-hartze batekin [Bilbo, 2010eko azaroaren 26an].
- >> Saiolan Arrasateko Enpresa eta Berrikuntza Zentroa 25. Urteurrena, "Pauso bat enpresa-sustapen eta garapenera" [Garaia Gunea, 2010eko azaroaren 26].
- >> Mondragon Healthen 2. Jardunaldia. "Industria: osasun sektorean aukera bila", Medikuntza Industriako Sektoreko etorkizuneko errokkak". Mahaian [Garaia Gunea, 2010eko abenduaren 10ean].


LASTER

- Innobasque B20 berrikuntzako mundu-liderren gailurreko bilera esku hartu du- [Washington, 2011ko urtarrilaren 14an].
- Europa 2020 estrategian Euskadi, "Hazkuntza Adimenduna: ezagutza eta berrikuntza" txostenarekin. [Eusko Legebiltzarra, 2011ko otsailaren 9].

INNOBASQUE: GEHIAGO GUTXIAGOrekin

Adierazitako konpromisoarekiko koherentzian Innobasquek bere barne-gastuen arrazionalizatzeko ekimen bat garatzen du "Gehiago gutxiagorekin" programaren bitartez.

Innobasqueren jarduerak egindako ekarpenaren balioa neurtzea baldintza ezinbestekoa da gure jardura norabidetzeko, izan ere berrikuntza-sistemaren iraunkortasun printzipio batez gidatzen da.



Estimazioek erakusten dute Innobasquek balio gehiago sortu duela 2010ean gastu-aurrekontu gutxiagorekin.

INNOCAMPUS

Unibertsitatea eta merkatuaren arteko lankidetzak sustatzen duen jardura, Innobasquek lankidetzak adosturik dauzka Euskal Unibertsitate gunarekin, graduatu ondoko ikasleek praktikak egin ditzaten Innobasquen proiektuak sendotuz doazen neurrian.

Nacy Adler-en Hitzaldia (DBS)

- > Deusto Business Schoolen eskutik (DBS) Nacy Adler Irakaslearen, Lidergo Global eta Managementean nazioarteko adituaren hitzaldia hau iragarri genuen: *"The Creative Economy And Beyond the Dehydrated Language of Management"*. [Bilbo, 2010eko azaroaren 15].



NOLA KALKULATZEN DUGU INNOBASQUEREN BALIOAREN EKARPENA?

Deloitte erabilitako metodologia bat erreferentziatuz hartzea erabaki dugu, Nonaka, Takeuchi (1955) ereduaren oinarritua. Zuhurtziaren printzipiopean ezarri dira estimazioak, ez dira kontuan hartu BPGaren efektu indutzuak edo biderkatzaileak, eta estimazioak beherantz ezarri dira. Adibidez, publizitate-balio estimatuaren %5 bakarrik kontabilizatu da, edo ERA-NETetako enpresa parte-hartzaileen aktibo mobilizatuaren %1. Gure helburua metodologia homogeneo bat erabiltzea da, aukera eman diezagun detektatzeko balio-katearen zein ataletan gure ekarpena oparoagoa den, eta etorkizunena norantz mugitu behar dugun.

2010ean ekarritako balio guztizkoa 1,59€koa izan da inbertitutako euro bakoitzeko.



LASTER

- 4 pertsona sartuko dira taldean beren proiektu akademikoko praktikak garatzeko, UPV-EHU, DEUSTUKO UNIBERTSITATEA, MONDRAGON UNIBERTSITATEAREkin lankidetzan.

IV. Berrikuntzaren Sozializazioa

Zer da?

Berrikuntza gizarteratzea euskal gizartearen Eraldaketaren beharra ereiten jarraitzea da. Berrikuntza hedatzea ibilbide luzeko lana da, ezinbestekoa agertoki berriak identifikatu ahal izateko.

Barrurantz honetarako:

- > konexioak erraztu eta norberaren gaitasunak bultzatzeko.
- > berrikuntza eragiteko
- > kanpoaldean inpaktatzeko, berrikuntzako eredu propio baten ahalmena erakutsiz (emaitza objektibagarriekin)

Kanporantz honetarako:

- > agertoki berriak identifikatzeko.
- > begirada bideratu eta geure baliabide(urriak) inbertitzeko lehentasunak hautatzeko.
- > kanpoaldean eragiteko, berrikuntza-eredu propio baten ahalmena erakusteko (emaitza objektibagarriekin).

CANALES DE INNOBASQUE

- > **Basque Innopolis:** Innobasqueren asteroko buletina. Hemen eskuragarri: www.basqueinnopolis.com
- > **Innobasqueren Asteartea:** hileroko deialdia berrikuntzaren protagonistei foro hedatzaile eta ireki batean, euskal berrikuntza pertsonen, erakundeen eta komunikabideen begiradapean ezartzeko.
- > **Innobasque 2.0:** Youtube, Flickr, Facebook, SlideShare, Issuu eta Delicious-eko Innobasque kanaletan kontsulta daiteke.
- > **Argitalpenak:** Innobasqueren lerro editoriala eskuragarri: www.innobasque.com.
- > **Innobasque online:** Innobasqueren online jarduera Web, Log eta gizarte-sareetan.



“Berrikuntzako Euskal Sistema. Azterlan-kasu bat Uruguairako”.

Liburu honek Berrikuntzako Euskal Sistemaren egitura eta eraikuntza-prozesua deskribatzen du, egileak, Alberto Nieto doktoreak elkarriketatutako euskal aktore batzuen ekarpenak integratuz, 2009ko martxoan eta apirilean. Azterlanean azpimarratzen da “diseinuak eta politika publikoak abian jartzeak izandako garrantzia, ezagutza sortzera eta erabiltzera bideratuak euskal ekoizpenaren lehiakortasuna sistematikoki gehitzeko izan duen garrantzia. Beste irakaspen batzuk hauek izan dira: 2 politika horien gidari izan zen ikusmolde estrategikoa, eta haiek denboran zehar izan zuten jarraitutasuna.”

[Hemen eskuragarri: anii.org.uy/web/paginas/el-sistema-vasco-de-innovaci-n-un-caso-de-estudio-para-uruguay]

LASTER

- Innobasqueren web berriaren irteera.
- FLL Espainia. FLLaren estatu-torneoa egitea Euskal herrian. [2011ko martxoaren 12]. UPV_EHUko Paraninfoa].
- INNOBASQUEREN ASTEARTEA:
 - URT, 18: Piramidearen Oinarriko Estrategia [Bilbo, Kooperera].
 - OTS, 22: Gizarte Berrikuntza: aukera bat Euskadirentzat. [Bilbo, La Bolsa]
 - MAR, 22: Berrikuntza-adierazleak: NESTA ikerlana.



Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren Astea

Astea da Euskadi egiten den zientzia, teknologia eta berrikuntzaren gizarte-komunikazioko gertaera handiena, gizartearen zientzia-kultura sustatzen eta gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sortzen laguntzen duen urteroko hitzordua. 2010 Astea azaroaren 8 eta 21 bitartean ospatu zen ofizialki, eta 150 jarduera baino gehiago izan zituen enpresa, instituzio, gizarte, komunikabide ta, batez ere, barruti zientifiko-teknologikoko eragile desberdinek programatuak. Anil K. Gupta irakaslea hasi zen azaroaren 8an, astelehenean Bilboko La Alhondigan ETEentzat irekitzen diren aukerei buruzko hitzaldi batekin India edo Txinako herrialdeetan, eta gorantz datozen ekonomietan egoki kokatzeko gidalerroak eskainiz eta euskal ekintzaileentzat aukerak identifikatuz hazkuntza handiko ingurune hailetan. Eta hortik aurrera zenbait astez tailerak, hitzaldiak, solasak, erakusketak, kafe zientifikoak eta ate irekiak, non topo egin baitzuten Business Global Conference-



hamargarren aldiak lelo honekin: "Berrikuntza: krisitik aukerara", "Foro Innoganberak: berrikuntzarako lankidetzan" Eusko

Ganberena, edo Maite Fundazioaren Aurrezpena, besteak beste. [8-21 2010eko azaroa. Ikusi: www.astealasemana.org]

First Lego League Euskadi

Bigarren urte jarraituan, Innobasque arduratu da Iñaki Goenaga Fundazioarekin batera, First Lego League robotikako nazioarteko torneoak garatu eta egikaritzeaz. Hartarako, lankide estrategikoen sare batean bermatu da: EUSKALTEL, EUSKO JAURLARITZA (Teknologiako Zuzendaritza, eta Zientzia Politikako Zuzendaritza), Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioa

eta FECYT. Kirol-gertaeraren formatua duen robotika-torneo hau, nazioarteko proiektu bat da bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatu nahi dituen, pentsamendu analitikoak, sormena eta berrikuntza eskoletan bestelako era dibertigarrian eta aldi berean hezigarri eta motibagarrian. Guztira 270 gaztek esku hartu zuten Euskal ikastetxe desberdinetakoak 26 eki-

potan ikerketa-proiektuak aurkeztuz biomedikuntzarekin zerikusia dutenak, diseinuko proiektu teknikoak eta robot-programazioak, eta taldean lan egiten badakitela erakutsiz. Eta hori guztia 700 pertsona baino gehiagoko giro batean lorpen eta hutssegite bakoitza animatuz, dibertituz, txalotuz.

Gertaera biomedikuntzan eta robotikan emandako 100 ordu baino gehiagoko prestakuntzarekin osatu zen eskolarientzat eta irakasleentzat TECNALIA eta IK4ren eskutik.

26 ekipoetako bostek hurrengo faserako, estatalerako pasabide lortu zuten, honako hauetan gailentzeagatik: proiektu zientifikoan, teknologikoan, roboten programazioan eta ekipo-lanean. Ekipoak hauek dira LSBideluze (Andoingo La Salle Berrozpe), Overclock Axular Donostiako Axular Ikastola), Laurobang Loiuiko Lauro Ikastola), Arizmendi Ikerlan (Arrasateko Arizmendi Ikastola eta Prototype (Leintz-Gatzagako talde libre).

Estatu-finala oraingoan Euskadin egingo da. Hala aukera izango da Holandako europar torneorako sailkatzeko edo EEBBetako San Luisen jokatu den mundu-final handirako. [Euskaltel, 2010 abenduaren 11an].



Innobasqueren Asteartea

Berrikuntza komunikatu: Kultura, enpresa eta gizartea

Jardunaldi bat ezagutzaren balio-kateari eskainia, haren transferentziari eta haren hedapenari, eta bertan 60 pertsona baino gehiago izan ziren. Bost adituk eman zuten jarraibidea ezagutzatik berrikuntzarako: Juan Ignacio Pérez, UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren Zuzendariak; Nuria Molinero, FECYTen komunikazio-zuzendariak; Txema Pitarke, CIC nanoGUNEaren Zuzendari Nagusiak, Carlos Calleja Tecnaliako ICT Dibisioko negozio-garapeneko Zuzendariak; eta Carlos Luna, Aginagako Angulak-en Zuzendariak. Bost hizlariak ikuspegi osagarriak eman zituzten funtsezko auzi bati buruz, ezagutza aplikatuaren transferentzia handiagoaren eta hobearren beharraz.

Nuria Molinerok FECYTek bi urtez behin lantzen duen Zientzia eta Teknologiarenean Gizarte pertzepzioaren V. Inkestaren euskal txostena aurkeztu zuen eta esan zuen kontsultatutako euskaldunen %12k erantzun zutela espontaneoki interesa sentitzen zutela zientziarekiko: "Euskal hiritarrek zientzia eta teknologiarekiko duten interesaren gero eta bilakaera gorakorragoa dago, bai eta lanbide- eta jardueren zientifikoaren irudi positiboagoa ere".

Jardunaldiaren galdorra Aginaga Angulen arduradunak ezarri zuen Iparraldeko Gula berrikuntza-, ezagutza-aplikazioaren eta ezagutzaren eragile ekoizleak direnen, instituzio publikoen eta barruti pribatuaren arteko erlazioa adibide bezala ezarri. Carlos Lunak aipatu zuen ez dela nahastu behar berrikuntza hobekuntzak egitearekin, "hobekuntzak egiteak lehiakorrago izaten laguntzen dizu, baina berrikuntzak lidergo-jarrera ematen dizu".

[IPAR KUTXA, 2010eko abenduaren 14].



HITZARMENA

Hitzarmen bat sinatu da EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILArenkin bokazio zientifikoak sustatzeko.

MEDIOETAKO INPAKTUA

2010ean Innobasquek metatutako balioa 5.500.000 euroko da (baliokidetza publizitarioaren arabera).



Liburuaren aurkezpena: "Burmua Ezagutu Hezkuntzako Bikaintasunerako"

Innobasqueren Asteartetako hileroko foroan "Burmua Ezagutu Hezkuntzako Bikaintasunerako" liburuaren aurkezpena gertatu zen. Bihotz Sakratua Ikastetxe Karmeldarrekiko eta *Human Management System* sekiko lankidetzan landu dena. Argitalpen horrek Hezkuntzako b-Taldeak burututako lana jasotzen du eta helburutzat du burmuinaren ezagutzarekin zereikusia duten ikerketa zientifikoaren egoera ezagutzeko, hezkuntza-munduan aplikazioa izan dezakeen heinean, alderdi bikoitz batekin: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzea lortu eta hezkuntza-politiken arduradunei jarraibideak eman. Beraz, gaiaren egoeraren bilketa eta sintesi bat da neurozientzien barrutian hezkuntzari aplikatua, izan ere identifikatu egin nahi ditu hezkuntza hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen alderdi haietan.

Jardunaldi hartan honako hauek esku hartu zuten: Luis Maria Ullibarrri, Innobasqueko Gizarte Berrikuntzako Arloko Zuzendariak; Francisco J. Rubia Vila, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Medikuntza Fakultateko Katedradunak eta Madrilgo Erkidegoko Ikerketako Zuzendari Nagusiak; eta liburuaren egileak Nieves Maya, Bihotz Sakratuaren Ikastetxe Karmeldarreko Zuzendariak eta Santiago Rivero, *Human Management Systems*-eko Kontseilariak.

[Gasteiz, azaroaren 2. GIZARTE BERRIKUNTZA].

Koaderno estrategikoaren aurkezpena "Enpresen aberastea eta bizkortzea"

Dokumentu honetan datozen bi urteetan berrikuntzako Euskal Agentziak egikaritutako duena jakinarazi nahi da ekintzailtzeta gaian. Ekitaldira ehunen bat pertsona etorri ziren PGEbak (Presentzia Globaleko Enpresa Berrikuntzaileak) sortzeko interesa zutenak Innobasquek burututako duen prozesu batean. Jardunaldian honako hauek esku hartu zuten: Guillermo Ullacia, Innobasqueren Lehendakariak, Gaizka Zulaika, Innobasqueko Inbertsio Zuzendariak; Ignacio Lakunza, Innobasqueko Ekintzailtzeta Indartzeko Dinamikaren Zuzendariak; Joseba Mendizabal, López de Arriortua Taldearen Zuzendari Nagusiak; Xabier Uribe-Etxebarria, Anbotoko CEOaren sortzaileak eta Itxaso del Palacio, doktorea eta Imperial Collegeko ikertzailea. Gertaera, koaderno bezala premisa batetik abiatuta garatu zen "possible al da gizarte berritzailea izatea ekintzailtzeta izan gabe?" Ezagutarazi zituzten ekintzailtzeta indartzeko estrategiaren nahia definitu zuten hiru printzipioak edo teoriak. Aurrena, nolako bilakaera izan duen ekintzailtzeta irudiak. Ondoren, zein diren arrakasta lortzen duten sektoreak eta, azkenik, non kokatzen den Innobasqueren jarrera-hartzea. [Bizkaiko Aldundiaren Foru Artxibategia, 2010eko azaroaren 16an].



Eranskinak

Berrikuntza berritu

Guillermo Ulacia

- Innobasqueren Lehendakaria
- El País, 2010eko azaroaren 21

Vladimir eta Estragon, Sam Beckett-en pertsonaiak existitzeari utzi dion eredu bati gogor heltzen diotenen benetako ordezkari bezala interpreta daitezke (zuhaitz ihar bat da haien agertokia), Godot noiz agertuko den eta salbatuko dituen esperoan. Baina datorrena espero gabeko norbait da, Pozzo krudela, Lucky bere esklaboa (zorteduna) lagun duela, haren ekintzarik ezaz trufatzen dena. Gogora ditzagun testuaren azken lerroak:

Vladimir: Zer! Bagoaz?

Estragon: Bai, goazen.

[EZ DIRA MUGITZEN.]

Zorionez gure herrialdean burutik sano dagoen inor ez dago Godoten esperoan. Krisiaren egungo diagnostikoa sobera ezaguna da. Badirudi aldi atzerakoi honetako ondare zaila izango dela xurgatzeko. Baina aitortu behar da balio izan duela agerian jartzeko ahulezia ezkutukoak: nola produktibitatean hala enplegu-tasan, desiragarria denaren azpitik, edo gutxi nazioartekotutako merkatuen desberdintze urri batean. Horrek guztiak lasta ezartzen dio gure ekonomiari. Alabaina, txarrena gaintu eta gero, aukerak ere sortzen dira, galdera da, nola kudeatu dezakegu krisia hazkuntza iraunkorreko bideak eraikitzeko?

Estrategia sendo bat behar dugu bezeroengana bideratua, gure gizarte-gaitasunak gidatua, produktibitatean, lehiakortasunean eta enpleguan efektuak eragiteko gai dena epe laburrerako jaduerekin, munduko maparen erditik baztertuak ez izateko. Aukera baten alde borroka egiteko aukera emango digun estrategia bat.

Enpleguaren erronka. Lisboako agendak helburutzat jarri zien EBeko herrialdeei %65eko enplegu-tasa bat 2010ean. 9 herrialdek bakarrik, onaldi betean, lortu zuten lehen helburua. EAEn, 2009a %65eko enplegu-tasarekin itxi zen, espainiar batezbestekoaren gainetik,



%57koa baitzen. Geure enplegu-tasa gehitu beharra daukagu, eta planteamendu desberdinetatik aktibatu beharko da, baina epe luzera printzipio batek gidatu beharko lituzke erabakiak: neurrien iraunkortasunak. Egitura-aldaketek bakarrik segurta dezakete enpleguaren gehitzea iraunkorra izatea.

Orain industriak bultzatzen du BPG, baina hazkuntza horrek ez ditu behar adina enplegu. Aireratze-abiadura bizkortu behar dugu behe-aldeetatik irteteko. Caixa Catalunyaren arestiko txosten batek dio 6 urte beharko direla Estatu osoan galdutako enplegua berreskuratzeko (1,8 milioi lanpostu), urtean 300.000ko erritmoarekin. Kopuru hori, 6 urte, azkeneko krisian, 1991n irabazle atera ziren enpresak beren sektorearen aurrealdean iraun zuten denbora da.

NOLA KUDEATU KRISIA HAZKUNTZA IRAUNKORREKO BIDEAK SORTZEKO?

Agertoki globala. Kontsumitzaile bezala globaltasuna gurenagatu dugu. Globali jokatzen dugu, hartaz baliatzen gara gero eta eraginkorragoak diren merkatuei esker. Ondasunek eta datuek gero eta bizkorrago bidaiatzen dute eta teknologia hazkorrek atergabe murrizten dituzte kostuak eta denborak. Baina, zer da produktu global bat? Produktu bat, zeinaren balio-katea halako punturaino atomizatu den, non gero eta herrialde desberdinoetako eragile askoren parte-hartzeaz integratzen duen, funtsean Informazio Teknologien parte-hartzeari esker (IKTak) Globalizazioa eta IKTak ontzi berean doaz. Gaur egun produktu informatiko batek 20 herrialde baino gehiagotan garatu diren osagaiak eta prozesuak izan ditzake bere baitan. Joera hori gehituz joango da eta edozein produktu, zerbitzu edo horniketa erasandako du, irismen sozial ustekabekoekin. Oraindik urte asko ez direla liburu bat nahi genuenean liburu-denda bateraino joaten ginen. Liburu apaletan ez bazegoen, sarri gertatzen zenez, gure liburu-saltzaileak enkargatu egiten zuen, eta gu hura jasotzera itzultzen ginen. Gero liburu-denda digitalak etorri ziren, gure eskura

egundoko katalogoa jarri zutenak, eta handik egun gutxira liburu eskuetan geneukan, etxetik mugitu gabe. Orain liburu digitalarekin, klikateko bakar bat da, eta berehalaxe has gaitzke irakurtzen. Hori da joera, zalantza batzuk gorabehera: Non egongo da liburu-denda hori? Zer dirutan ordainduko dugu deskarga? Zer ordainketa-sistemaz? Zer eta noren softwarearen bitartez? Norengana joango dira zerga horiek? Zeren, izango da zergarik?

ENPLEGU IRAUNKORRA GEHITZEA EGITURA ALDAKETENGATIK GELDITZEN DA

Outsourcing worldsourcing bihurtzen ari da. Ekonomia globala herrialdeen integrazioetik pasatzen da, eta horretaz hitz egiten dugu konkurrentzia globala dela esaten dugunean. Faseetako bakoitza erasaten du, osagai bakoitza, prozesu bakoitza, eta aldi berean aukerak amaigabeki irekitzen dira, bai zerbitzu aurreratuetan, edo soluzio integraletan espezializatutako enpresentzat, zeinaren desberdintze-iturria ezkutuko berrikuntzak abiaraztetik baitator, beste baliabide mota batean inbertitzen baitute, I+Geko inbertsioaz bestelakoetan.

Hori berrikuntza da. Zaila da irudikatzen zerbait kritikoagoa egungo uneetan berrikuntza baino. "Berrikuntza berri" iradokitzen dugunean aurretiako eskakizun bat dagoelako da: ez da aski gaurko eguna arte irudikatu den bezala. Berrikuntza bat behar dugu: i) Bezeroek gidatua. Haien behar desberdinek, eta hori da krisi honek irakatsi diguna. Arrakastako berrikuntzak merkatua gidatzen du. Eta ez aurrez dagoenaren oinarrian, ez eta tradiziozko nitxoetan ere. Izan ere orain merkatua gorantz datozen herrialdeetan dago. ii) Jarduera guztietan eta antolatze-maila guztietan txertatuko den berrikuntza bat. Enpresa irabazleak, dio Anil K.Guptak, berrikuntza iraunkorreko egoera batean biziko dira, beren jarduera-estadio eta -fase guztietan. Edozein atazak, nahiz eta huskeria bat dirudiena izan, berrikuntza beharko du. iii) Iraunkorra izango den berrikuntza bat (eko-berrikuntza), zeren eta hazkuntza iraunkorrak ingurumen-inpaktua

hobetzea eskatzen baitu, bai eta soziala eta ekonomikoa ere; iv) Lankidetzatik ekingo zaion berrikuntza bat:

- Enpresa-arteak merkatuaren eskakizun gero eta handiagoei aurre egiteko. Beraz enpresek adituak izan beharko dute lankidetzako berrikuntzan, zeren eta horniketa-katea desatalkatzen denean, beharrezkoagoa baita balioa mihizatzea.
- Publiko-pribatua: berrikuntza erabatekoa. 6.0 berrikuntza, Xavier Ferràs-en definizioaren arabera, kultura bihurtzen den berrikuntza. Enpresez gainera, lurraldeak interesak integratzen ikasten duten berrikuntza-sistema bihurtzen dira (barnekoak eta kanpokoak).

ZAILA DA IRUDIKATZEN EZER KRITIKOAGORIK UNE HAUETAN BERRIKUNTZA BAINO

Itzulera gabeko puntua. Bistakoa da errezetarik ez dagoela. Hau idazten ari denak ere ez du inolako formula magikorik. Beraz bakarrik geratzen zaigu oraindik garatu gabe dauden gaitasunak aktibatzea. Berrikuntza berri behar dugu, globalki lehiatu ahal izateko. Zirkunstantzia hauetan ez du balio "bai" esatea berrikuntzari, orain ekintza konpromiso bihurtu behar da. Albert Einsteinek zioen, "Ez dut pentsatzen geroan, bizkorregi iristen da".

“Langileen enpresen kudeaketan eta kapitalean parte-hartzeak egonkortasun handiagoa sortzen du”

Juan María Uzkudun - Gipuzkoa Berritzen-eko Lehendakaria

Krisia enrokatze-egoerak sortzen ditu, erantzun gutxi eskaintzen dituztenak. Gipuzkoa Berritzen-enen Lehendakaria, Juan Mari Uzkudun, langileek enpresen kudeaketan eta kapitalean parte-hartzearen aldeko irmoa da krisitik irteteko bideetako bat bezala.

Carlos Etxeberri - NOTICIAS DE GIPUZKOA, Larunbata, 2010eko apirilaren 24.

Zer irteera ikusten duzu lan-merkatuan aldaketa baten eskaeraren aurrean krisiari aurre egiteko?

Ez naiz aditua lan-harremanen gaian, baina bi gauza oso argi ditut. Lehena, krisi honek jendeak uste duena baino gehiago iraungo duela, eta bigarrenik, nolabait esateko egitura-krisi bat dela, eta horregatik egitura-aldaketak behar direla. Lan-harremanen ereduak seguru asko aldatu egin behar dira, baina aurrez egitura-ereduen aldaketa bat burutu behar da.

Zer terminotan gertatu behar du aldaketa horrek?

Autore asko samarrek diote enpresetako kudeaketa-ereduak aldatu behar direla epe laburreko obsesioa alde batera utzi behar dela, nahiz eta garrantzizkoa izan, epe luzerakoaren ordez. Bestalde, oso kudeaketa pertsonalista batetik kudeaketa aldatu egin behar da lau zuzendariren eskuetan egotetik konpainien parte eratzan duten pertsona guztien parte-hartzeko kudeaketa batera.

Langileei buruz ere ari al zara?

Bai, langileen enpresen kudeaketan esku hartu behar dute. Enpresa-bilakaera langile guztien aldetik balio-ekarpen handiagoko edukia duten jardueretara doa. Horri ezagutzaren enpresa deitzen zaio eta azpimarratzen da langile guztiak egiten duten balioaren ekarpena erabat garrantzizkoa dela. Kontrazentzu bat da balio-ekarpena langile askoren eskuetan egotea eta enpresen aktibo nagusia izatea eta, aldiz, boterean eta enpresaren emaitzetan parte-hartzerik ez izatea.

Zer partaidetza-eredurantz joan behar dugu? Garrantzia duena kudeaketan parte-hartze erreala izatea, epe luzera sozietatean partaidetzatik bakarrik bermatu baitaiteke... gaur gaurkoz eta lege-araudia dagoen bezala, enpresa baten emaitzetan boterea eta partaidetza ematen duena, jabetzako partaidetza da, hau da, akzio batzuen bitartez edo beste era batera konbinazio desberdinen bitartez.

Kudeaketan parte-hartzeak kapitalean presentzia izatea suposatzen du...

Bai. Eskatu egingo du, bestela, une jakin batean sakrifizioak egin behar direnean edo arrisku pixka bateko operazio bat, jabetzak sentituko du haren interesak eta kapitala arriskuan jartzen ari direla eta langileen parte-hartzea kudeaketan bakarrik zentratzen bada, beharrezkotzat ikus dezakete baina haren ondorioak bizi gabe. Eta horrela zaila da kudeaketan esku hartzea. Niri iruditzen zait askoz errazagoa dela eta askoz eraginkorragoa jabetzan esku hartzea.

Horretarako pentsamolde-aldaketa behar da?

Kultura-aldaketa batek gertatu behar duela-koan nago. Egia esateko Gipuzkoan neoliberalismo amerikarraren kudeaketa-moduak eta erak hartu ditugu. Horrek inplikatzan ditu gaurko krisirako desegokiak diren balio, ohitura eta jokabide batzuk. Krisian garrantzizkoena ez da noiz aterako garen hartatik, baizik eta hori egingo dugun era.

Ikuspegia ez da batere baikor agertzen, ezta?

Ohikoa da esatea denok itsasontzi berean gaudela, jabetza gutxi batzuen denean. Mundu guztiaren laguntza eskatzen da enpresa bat salbatzeko, baina jabetza partaidetza eskaini gabe. Kontrazentzu bat da, orain arte funtzionatu badu ere, etorkizunean ezin izango du iraun. Mundu guztiaren parte-hartzea eta ahalgina eskatzea eta banaka batzuek bakarrik beretzat gordetzea botere eskusiboa porrotera eta desagertzera kondenaturiko ereduak da.

Krisia sortu duen neoliberalismoaren antitesia dirudi?

Aditu asko bat datoz esatean krisi hau merkatuari beste edozein egoeraren gainetik le-

hentasuna eman dion planteamendu erabat neoliberalaren efektu bezala proiektatu, kudeatu eta burututako krisi bat izan dela. Pertsonenganako erabat errukigabea den planteamendu erabat neoliberal horrek ez du etorkizun handirik eta modu bakarra iraultzea da eta pertsonen garrantzia kontsideratzea. Ezin dugu bultzatu hazkuntza ekonomikoa eta merkatu berriei ekin pertsonak sakrifikatzearen ondorioz. Hori jasanezina da %20^a lortzen duen lan-gabezia batekin. Ekonomia pertsonen zerbitzuan dago eta ez alderantziz.

Enpresaburuak dira lehenak soluzio mota horiek arbuatzen...

Erabat kontrakoa uste dut. Hain zuzen, gaur egun bada mugimendu bat, non aurkitzen baitira H. Mintzberg, Gary Hamel eta J. Riffkin kudeaketaren guruak, eta bertan diote epe luzerako ikuspegia duten enpresaburuak, oso interesatuak egongo direla enpresan lan egiten duen mundu guztiko tarteko bihurtzen, horrela gehiago balio duelako. Ukiezinen balioa balantzea gero eta garrantzitsuagoa da. Enpresa batean tarteko diren pertsonak ukiezin gehiago sortuko dute eta enpresak gehiago balio izatea eragingo dute. Eta hori, enpresaburu argiak balioetsi egiten du.

Eta sindikatuek?

Sindikatuak gaurko kultura honek guztiak baldintzaturik daude. Agertoki hori begiztatzan ez duen jarrera batetik eboluzionatu egin behar dute hura aztertzen saiatzera eta langileentzat irteera oso interesgarri bat izan daitekeela ikustera.

Zenbat eta parte-hartze handiagoa, produktibitate eta malgutasun handiagoa?

Zalantzarik gabe. Partaidetza eskema aberatsago bat da, enpresaburuaren, zuzendarien eta langileen aldetik ahalgin handiago bat sortzen duelako eta horrek mesede egiten dio produktibitateari. Parte-hartzea izan duten enpresetan, eta Gipuzkoan esperientzia luzea duen horretan, inplikatu guztiak hitz egiten eta eztabaidatzen dira arazoak. Soluzio horietako bat malgutasun bada hartu egiten da neurri hori. Gipuzkoan, bi faktore oso garrantzitsu ere badira hala nola asoziazionismoa eta lurralde-erikiko atxikimendua.



Hala ere inork ez al du planteatu auzi hau ikuspuntu instituzionaletik?

Uste dut instituzioek uste izan dutela mugimendu asoziazionista marjinala zela, kasuren baterako balio zezakeela, baina bideraezina zela. Gaur badakigu, Estatu Batuetan, tamaina handiko sozietate anonimoen gehiengo handi batek eta Burtsan kotizatzen dutenek, langileen parte-hartzea dutela kudeaketan eta kapitalean % 30 baino handiagoa dena. Horrek frogatzen du enpresa pribatua eta partaidetza kontrajartzea gaindiezina zirudiena aise konpontzekoa dela. Parte-hartzeko enpresa bat egonkorragoa da, ez dago arinkeria jakin batzuen azpian, lurraldean errotuago dago eta, horregatik, epe, luzeagorako proiektioa du.

Une honetan planteatzen ari al dira ekimenen bat parte-hartzearen alde?

Beste eremu batzuetan bezala. Nahikoa ekimen daude, oraingoz, txikiak, gai hau jorratzen ari direnak. Berriki, bizpahiru enpresa ikusi ditugu, zeinetan auzi honen mugimendu bultzatzaileak eta langileen kudeaketa-partaidetzako ekintzak burutu diren. Gipuzkoa Berritzen-en baitan eztabaidatu dugu gai hau eta unibertsitate-ikuspuntutik badira abian ikerketak. Gogoeta oso sakona dago partaidetza den horri buruz.

GAKOAK

“Kontrazentzu bat da langileak aktibo bat izatea eta ez esku hartzea boterean eta emaitzetan”

“Enpresak gehiago errotzen dira lurraldean eta proiektio handiagoa dute epe luzera partaidetzarekin”.

Euskadi energia-erronkaren aurrean

Oihana Blanco (Innobasque) eta **Daniela Velte** (TECNALIA)



Energiaren Nazioarteko Agentziak datu berri batzuk eman ditu petrolio-upelaren prezioari buruz “World Energy Outlook” bere txostenean. ENAk aurreikusten du prezioa pasatuko dela 60\$etik 2009an 100\$etara 2015ean, eta 200\$ak gaindituko dituela 2035ean (merkatu-prezioak), petrolio-erreserbak agortzearen ondorio bezala.

ESPN ReRisk (Regions at Risk of Energy Poverty) proiektuak, Innobasquek lideratua eta Tecnaliak koordinatua epe ertain/luzera energia-prezioak altuak izango direlakoan oinarritzen da. Haren helburua europar erregioen zaugarritasuna aztertzea da testuinguru horretan., bai eta gomendio politikoak ematea erronka horri aurre egiteko, haien ahalmenak garatu eta europar lehiakortasuna gehitzeko. Proiektuan esku hartu dute kide bezala Nordregioak (Nordic Center for Spatial Development) eta NTUAK (National Technical University of Athens).

ReRisk esparruan, zeinaren azken txostena arestian eskuratu baitzaio ESPONi, 287 europar erregioren zaugarritasuna aztertu da NUTS 2 mailan eskuragarri dauden datu erkagarriekin, lehiakortasun industrialari eta enpleguari, garraio motordunarekiko mendekotasunari dagokionez, eta gizarte-terminoetan, energiaren erabilera desberdinetan kontzentratuz, erregioen espezializazio ekonomikoaren eta haien ezaugarri espazial eta klimatologikoen funtziotan.

Analisi honetan Euskadi ongi kokaturiko erregio bezala ageri da gizarte-zaugarritasunari dagokionez (2005eko krisi-aurreko datuen arabera), baina ez hainbeste garraio-mendekotasunaren eta lehiakortasun industrialaren terminoetan.

Euskadi, %18,40ko tasa batekin 5^o postuan kokatzen da Balio Erantsi Gordineko (BEG) erregioren ranking-ean, energia-gastu handiko industrietan. Hala ere, industria horien mendeand dauden enplegu-terminoetan, Euskadik

zaugarritasun ertaina ageri du, egitura ekonomiko desberdinuagoa duelako europar erregio zaugarriagoak baino, Europaren Ekialdean daudenekiko batez ere.

Halaber positiboki nabarmentzen da herrialdearen potentzial voltaikoa (beti europar batez bestekarekiko), aldiz, lehorreko potentzial eolikoa nabarmenki txikiagoa izan, lurraldeak erabilera horretarako duen azalera mugatuarengatik.

Euskadi, beraz, erronka batzuek dituen erregio bat bezala ageri da, baina potentzial handi batekin ez bakarrik energia-teknologia berri garatzeko, baizik eta bere lehiakortasuna gehitzeko egungo mundu-abagunean irekitzen ari diren merkatuko aukeren bitartez. Txostenak Euskadi “arazoak eta potentzialtasunak” dituzten erregioren artean sartzen du, eta bertan nabarmentzen dira antzeko ezaugarriekin “pentagonoko erregioak” deituak, Londres, Paris, Munich, Milan, Hanburgo eta haien inguruneek marrazturiko alorrean. Erregio horiek Europaren hazkuntza ekonomikoaren motorra bezala definitzen dira eta, horregatik, erabakigarriak dira europar lehiakortasunaren garapenean.

Txostenak dio amaitzeko estrategiak eta ekintzak garatu behar direla ez maila nazional eta europarrean bakarrik, bai eta erregioan eta tokian ere. Politikek bideraturik egon behar dute eraginkortasun energetikoaren, ingurumen-babesaren eta arriskuak prebenitzearen garapenera eta energia berriztagarriak hedatzera, besteak beste, kontuan harturik gobernantza maila desberdinak, eta lerrokatuz ez soilik Lurralde Agendarekin, baizik eta 2020 Europa Estrategiarekin.

Berrikuntza ha hau!

José María Villate - Innobasqueren Zuzendari Nagusia - DEIA, 2010eko abenduaren 11



Ekonomia globala eraldatzen ari da gure begien aurrean, egunero agertzen dira lehiakide berriak erregioa menderatzen zutela pentsatzen zutenak mapatik kanporatuz. 2007an Innobasque jaio zenean gure mezuak aurreratzen zuen agertoki hori, "ez daukagu etorkizuna bermaturik", genioen. Agian ñabartu egin behar genuen ez ginela ari etorkizun oso hurbilaz, ziurgabetasun jarraituko ingurune batek lagundurik iritsi dena. Zaugarri bihurtu gara. Mundu elkar-konektatu batean bizi gara maila guztietan, ezusteko askoren mende, gure kontrola kanpo dauden eragileek sortuak, edota aurrerapen faltaz hartutako arriskuek. Eta gure eredu sozio-ekonomikoak berrikuntza eskatzen du, modelatzeak, eta beharrezkoa denean berriz berrasmatezea.

Bide horrek berritzearen behar ezinbestekora garamatza eta gainera izugarriko lastertasunez hori egitera, zeren eta aldaketa agudotzen denean berrikuntzan garrantzi handia hartzen baitu, baina aldaketak larria denean berrikuntza gaoa da biziraupenerako.

BERRIKUNTZA JATORRIAN DAGO

Berrikuntza gero eta gehiago ikusten da eraldaketaren bektore berria bezala, ekonomia erresiliente, iraunkorago, eta bidezkoago batera eramango gaituena bezala. Hala dio Europar Batzordearen 2020 Europa Estrategiak. Fokapen handitu hori gogoeta berri baterako aukera ematen ari da zer den berrikuntza eta zertarako erabiltzen den inplikazio ugariekin, batez ere ezagutzaren ekonomiarik dagokionez. Zirkulatzen ari den, itxituran sartu ezin daitekeen ezagutza bat. Beharrezkoa da kanpoko talentura irekitzea, norberaren partekatzea, eta lankidetzan aritzea, batez ere erakunde publiko eta pribatuekin.

Baina goazen jatorrira, lehen gogoeta da gizateriaren hasieratik berrikuntzan ari garela, eta atergabe egiten dugu. Hala ere, suak 200.000 urte behar izan zituen

bezala sozializatzeko, irratiak 38 urte telebistak 13, Internetek 4, iPodak 3 eta Facebook-ek 2 urte bakarrik.

Enpresa edo erakunde batean zentratzen bagara, egiten den lehen berrikuntza, hura abian jartzen den une berean egiten da, ekintzaileak "mundu guztiak ikusten duena ikusten duenean; beste batzuek pentsatzen dutena pentsatzen du, eta inork egiten ez duena egiten du". Une horretatik aurrera, berrikuntza ibilbide desberdinak hartzen ditu, berrikuntza teknologiko hutsaren erreferentzia egiten duenetik hasita, hau da, I+G jardueraren ondorio bezala sortzen diren berrikuntza haiek, non unibertsitateak, teknologia-zentroek, I+G-eko departamentuek, ingeniarietakoek edo bulego teknikoak funtsezko garrantzia baitute. Zientziak eta teknologiak bultzatutako berrikuntza mota horri batu zaio indarrez merkatuak bideratua lehiakortasun-faktore bezala, eta hartan sartzen dira, bai berrikuntza teknologikoa (produktua eta prozesua), bai eta ez teknologikoa (marketina eta antolaera) edo berrikuntza bera ere bai negozioaren estrategian bertan (Ozeano urdinaren Estrategia", W. Cham Kim eta R. Mauborgn-ek idatziak azarna bikainak ematen ditu) hitz batean, bezeroarentzat balio diferentziala sortzea da kontua. Kontzeptu-aldaketa oso garrantzitsuak ari dira gertatzen, balio-garapenerako biode berriak urratzen dituztenak, batez ere gizarte-berrikuntzan, gizarte-erronka handiak soluzionatzera zuzendutako, zahartzea, osasuna, hezkuntza, migrazioak eta kultura-aldaketak. IKTen aurrekaririk gabeko sozializazioa, berrikuntza irekia (open innovation) edo "prosumer" edo "dreamketing" kontzeptuek (kontsumitzaile-ekoizle) joera berrien banakotzea fenomenoak konektatzen dituzte joera berri eta berrikuntza-ostertzekin. Ezin dugu jaramonik egin gabe pasatu administrazio publikoaren paper desberdinen gainetik zerbitzuak ematen berrituz, parte-hartzea eta gobernanzako eredu berrietan, edo erosketara publiko baten bitartez enpresetan berrikuntza erraztuko duena. Hau guztia bateratzeak edozein erakunde motaren oinarriko estrategia berrikuntza bezala integrazterazaramatza.

LURRALDE BERRITZAILEA

Hala ere, ez teknologia, ez merkatuak, ezta enpresek ere ez dute berritzen. Berrikuntza ekintzan ezarritako ezagutza da, beraz pentsamendua, emozioa eta ekintza inplikatzeko dituzten pertsonen bakarrak praktikatzen dituztenak, hori egiteko gaitasuna, borondatea eta ahaltasuna dutenak. Antolaerak, gizarteak berrikuntzaileak izango dira haiek itxuratzen dituzten pertsonak diren heinean, eta haien eginkizun nagusia kultura eta sormena, arriskua... erraztuko duten ingurune-baldintzak sortzea da... gauza berriak egiteko grina.

Berrikuntza, hala ulertuta, ekiteko, auto-ikasteko eta bere burua atergabe berrasmatezko gai den gizarte adimentsu eta sortzaile batean bizi da. Berrikuntza giro atergabean bizi den herrialde bat, aukera sozio-ekonomiko berriak sortuz. Berrikuntza, beraz, kultura bihurtzen da, zeren kontua dagoeneko ez baita enpresen artean lehian aritzea, baizik lurraldeen artean, berrikuntza-sistema bihurturik. Lehiakortasuna ez da enpresetan bakarrik biziko bai eta ingurune berrikuntzaileetan ere. Tesi horrek aukera ematen digu produktiboki planteatzeko lankidetzak, interes-integrazioa, parte-hartzea kontzeptuak, eta batez ere haiek nola eraman praktikara, eta aukera berriak sortzeko hedatzea erantzun berrikuntzaileak eskainiko dizkietenak erronka globalei, nola sozialei, hala ekonomikoari (BPGean eta okupazio-tasaren bereziki eraginez), bizi-kalitatekoari edo ingurumenekoari. "Ez dut pentsatzen geroan", zioen Einsteinek, "bizkorregi iristen da". Negozioen mundua menderatzen duten indarrek inborroka egin behar duten pertsona askok onartzen dute etorkizuna zizelkatzeko duten trebetasuna oso txikia dela. Eta arrazoiak dute. Ezin dituzte aldatu joera demografikoak, edo aldaketak kontsumitzaileen joeretan. Baina erreakziona dezakete indar horien aurrean, aurreratu, edo hobeto oraindik, abantaila lehiakorrak sortu. Bada zerbaite benetan arriskutsua: haiek kontuan ez hartzea da.



Talentu aleanitza

Guillermo Ulacia - Innobasque-ko Presidentea - 2010ko abenduak - LANABESA

Mundu mailako lehiakortasunaz hitz egiten dugunean, sarritan aipatzen dugu bertako talentua elikatzea nahitaezkoa dela. Eredu globalizatuan jarduteko gauza izango diren goi-mailako profesionalak behar ditu gure ekonomiak, munduan inor izango bada. Talentuaren Metropolia beharko luke Euskadik jomugan, enpresen egoitzaren kokapena baino askoz garrantzitsuagoa baita lurraldean bertan izatea etorkizuneko proiektuak garatu ditzaketen talentu-sareak. Nola landu, bada, bertako talentua? Luzeegi joko luke honek eman zaigun tarte honetarako eta, labur beharrez, bada, aspektu zehatz bati begiratuko diot: eleaniztasunari.

Gure arteko enpresa batzuek garbi ikusi dute lotura garbia dagoela langileen prestakuntza eta lehiakortasunerako gaitasunaren artean. Lanabesa Sariak banatzeko ekitaldian nabarmendu egin ziren urte hauetan hainbat kategorietan aurrerapauso sendoak egin dituzten horietako batzuk. Bada "izar" kontsideratu ditzakegun enpresa horien artean bada ezaugarri komuna: hizkuntzen aniztasuna kudeatzeko sistemak ezarri dituzte guztiek. Zer pentsa eman beharko luke horrek. Zertan laguntzen du, bada, hizkuntzen aniztasunak enpresaren lehiakortasunean?

2008ko irailean Europako Batasuneko Hezkuntza Ministroen Kontseiluak "Hezkuntza eta berrikuntza: gomendioak" txostena aurkeztu zuen, eta uztarrari berean jarri zituen datorkigun eszenatoki berrian jarduteko giltzarri diren elementuak: lehiakortasuna eta prestakuntza. Txosten horrek hainbat gida-lerro eskaini zituen, ene ustez, egoki eta anbizio handiarekin geure egin beharko genituzkeenak. Alde batetik, Hezkuntza Ministroek bertako hezkuntza-sistemetan Europako hizkuntzak sartzea gomendatu zuten, eta ezin egokiagoa deritzot bide horri; are gehiago: beste biderik ez dagoela esango nuke. Horretan, bada, bat egiten dut Günter Verheugen, Enpresa eta Industriako Europako Komisarioak 2008ko Enpresen

Foroan esan zuenarekin: "Hizkuntzetan eta hizkuntzen prestakuntzan inbertitzeak ekonomia globalizatuan jarduteko abantailak ekarriko dizkie Europako enpresei".

Gaur egungo testuinguruan elkarrekintza eta elkarlana arrakastarako gakoak dira, eta mundu mailan jardun ahal izateko, hizkuntza-gaitasunak lehentasunen artean ezarri behar ditugu. Ingelesa da bertako hizkuntzen artean funtzionalki lehena, baina Europak bere egin beharko luke gainerako hizkuntzen babesa eta sustapena, zein bere jardun-esparru zehatzean paper garrantzitsua izan dezakeelako.

Bide bertsuan, 2009. urtean "Languages means business" jardunaldian gai hau aztertu zuten 200dik gora adituek eta gogoeta interesgarriak utzi zituzten. Beren iritziz, lehiakortasun-galera pairatu dezake Europak hizkuntza-estrategia sendoa ez badu abian jartzen. Izan ere, sortzen ari diren ekonomia indartsu berriak hizkuntza-gaitasun handiagoak eskuratzen ari dira. (Asiako potentziak eta Brasil, nagusiki). Zentzu horretan, Europa mailako plataforma sortu behar da hizkuntzen inguruko enpresa-praktikak partekatu ahal izateko.

Etengabe aldatzen ari den mundu globalizatuan, hizkuntzen kudeaketa lehiakortasun faktore gisa kontsideratzen da. Informazioaren teknologiek erraztu egin dute hizkuntzen arteko ukitze-guneak bizitzako arlo guztietan, eta horrek aldaketa sakonak eragin ditu.

Erakunde publikoek beren berrikuntza-agendatan toki nabaria eskaintzen diote hizkuntzen kudeaketa integralari, eta Europara etorrira, Lisboako Itunaren haritik ahalegin handia egiten ari da bide horretan, industria, hezkuntza eta kultura aztertuz. Bada, hizkuntzen kudeaketa zehar-lerro nagusi bilakatu da berrikuntza politikak diseinatzeko orduan.

Mundu osoa merkatua duten enpresek nekez iraungo dute elebarkortasunean oinarritutako kudeaketa-eredu baten barruan.

Mundu osoko herritarren erakarpen-gunea bilakatu nahi den gure gizartean, nekez lortuko dugu integrazio-egitura sendoak eraikitzea hizkuntza eta kultura aniztasuna aintzat hartu gabe. Hizkuntzen aniztasuna, bada, balio kultur ukiezin eta ondarezkoa izateari utzi gabe, balio lehiakor gisa finkatzen ari da. Euskadin urteetan pilatu da esperientzia horren inguruan elebitasun-egoerak lagunduta. Horren kariaz, hizkuntzen industria sendo bat sortzeko aukera dugu, orain arte nahikoa ahul eta bakarka jardun duten diziplina desberdineko egiturak elkartzuz.

Ingurumari honetan, hizkuntza-aniztasunak balio lehiakor handiak dakarzkio euskal gizarteari. Bat datoz munduko joerak eta bertan nagusitzen ari diren etorkizunerako eredu-estrategiak: berrikuntzan oinarritutako gizarte eleanitzaren aldeko apustua.

Adierazleak Proiektua

Carlos Peña - Enpresa Berrikuntzako Programa Zuzendaria

Berrikuntza aitortzen da gero eta gehiago hazkuntza-iturri nagusitzat ekonomia indartsuago, garbiago eta integratzaileagoak lortzeko, eta hala jasotzen da arestiko azterlan eta txosten ugaritan, hala nola OCDEn "Berrikuntza Estrategian", edo Europar Batzordeko 'Berrikuntzaren aldeko Batasuna'n. Horrek esan nahi du, halaber, aitortzen dela zer garrantzi duen erregio eta lurraldeentzat berrikuntza-politika egokiak izateak, beren behar sozialak eta garapen ekonomikokoak asetzen lagunduko duen elementu bezala.

Baina aldi berean berrikuntza-prozesuari buruzko gure ezagutza aldatuz doa, prozesua bera eta berrikuntza kontzeptua bera aldatuz doazen bezala. Kanpoko ezagutzarako sarbidea eta lankidetzaren batez ere erakunde publiko eta pribatuen artean, gero eta garrantzitsuagoak dira berrikuntza-prozesurako, eta berrikuntza-erakunde irekiago batzuetara gidatzen ari dira. Berrikuntza ez teknologikoarentzat laguntza-politika gero eta handiagoen eskaera dago (hala nola antolatze- eta merkatu-berrikuntzetarako), bai eta zerbitzu-sektoreko berrikuntzarako. Halaber, sortzen hasi da kontsumitzaileen eskaera berrikuntza driver bezala. Gizarte-berrikuntza agertzen da gizartearen erroak asetzen laguntzeko lankidetzaren berri bat bezala, etab.

Berrikuntza-prozesuko eta hari asoziatutako dinamiketako bilakaera horrek, neurtzeko metodo egokiak eskatzen ditu, berrikuntzaren izaera konplexu eta dimentsioaniztun horri erantzun egokiak, eta lurraldeen kokapen erlatiboak ulertzeko aukera emango dutenak, hala ongi oinarritutako berrikuntza-politikak aplikatu ahal izateko.

Aurreko guztiari erantzunez, 2010ean proiektu bat plazaratu zen 'Adierazle Sistema baten Diseinua eta Ezarpena Euskal Herrirako', haren diagnostikoa, emaitzen ebaluazioa eta nazioarteko kontrastea egiten lagunduko zuena, hartara Euskadi berrikuntzaren neurketa-

sistemen abangoardian kokatzen lagunduz. Proiektu hura, bestalde, 2008 eta 2009an garatutako 'Berrikuntza adierazleak' ekimenaren jarraipen bezala planteatu zen, non definitu baitzen Euskal Herriaren eraldaketa ekonomiko eta sozialaren esparru-kontzeptu bezala, izan ere hari zerbitzatuko zion adierazleen multzoak.

Innobasquek zuzenduriko proiektua, Lehiakortasunaren Euskal Institutuaren lankidetzaren du - Orkestra (Mikel Navarro), Davide Parridi eta Josune Sáenz), bera arduratu baita analisi-lanaz eta ikerketen garapen teknikoaz. Gainera berrikuntza-adierazleen gai horretan antolaera eta erakunde adierazgarrietako pertsonen ekipo baten laguntza izan du, eta haien papera azterlanerako kontraste izatea, halako moldean, non haren emaitzak bilatutako helburuetara eta Euskal Herriaren errealitate sozioekonomikora egokitzen baitziren.

Proiektuan esku hartu duten kontraste-taldeko pertsonen zerrenda honako hau izan da:

- Ana Vitorica eta Javier Hernando - Eusko Jaurlaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Alberto Alberdi - Eusko Jaurlaritza, Ekonomia eta Ogasuneko Saila
- Mariví García - Estatistikako Euskal Institutua EUSTAT
- Aitor Aranguren - Gipuzkoako Foru Aldundia, Bulego Estrategikoa
- Emilio Arranz - Bizkaiko Foru Aldundia, Sustapen Ekonomiko Departamentua.
- Pablo Almaraz eta Liher Martin - Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera
- Eduardo Arechaga - Euskal Enpresaburuen Konfederazioa CONFEBASK
- Belén Barroeta eta Jonatan Paton - Infyde Informazioa eta Garapena

- Begoña Sánchez eta Mirari Zaldúa - Tecnalia Berrikuntza Sistemak
- Javier Larraia - IKEI, Research and consultancy
- Mikel Ugalde eta Patxi Pardo - EUSKALIT, Bikaintasunerako Euskal Fundazioa
- Javier Puertas - LKS, Kudeaketa Kontsultoria
- Carlos Peña - Innobasque, Enpresa Berrikuntzako arloa

2010ean zehar proiektuan garatutako lana, 4 kontraste-tailer egiteaz gainera, honako elementuak lantzearekin bukatu da:

1. Berrikuntzaren neurketarako hurbiltze orokorra, gaiaren egoera eta dauden bi hurbiltzeak deskribatzen dituen, 1) ekonometrikoa, hazkuntzaren kontabilitatearekin, berrikuntzaren aktibo ukiezinen identifikazioari ekiten diona eta 2) berrikuntza-adierazleena, adibidez European Innovation Scoreboard-ekin (EIS) ezagutarazia.
2. Berrikuntza-adierazleen proposamena Euskal Herrirako, eta haren analisi konparaturako. Adierazle-multzo desberdinak proposatu dira haren erabilerekin arabera, autoebaluazio bezala erabiltzeko osatuenetik hasi, adierazle kopuru handienarekin, beste bakunagoetako batzuetaraino erreferentziako beste erregio batzuekin edo Europako batasuneko erregio guztiekin konparatzeko balio izan dezan. Euskadiren jardueraren beste herrialde batzuekin alderatzean, EIS erabiltzen jarraitzea gomendatu da, oso zabaldua eta erabilia delako.
3. Jarduera onen analisi alderatuak: erreferentziako erregioak identifikatu beharra. Euskal Herriaren 'antzekoak' diren europar erregioak identifikatzeko metodo baten deskribapenari ekiten dio, zeinen aplikazioak erregio haiek



Zahartzearen ikusmolde baikorago baten beharra

Dr. Javier Yanguas eta **Dra. Elena Urdaneta** - INGEMA Fundazioa. Innobasqueren bazkideak

identifikatzera eraman baitu eta haien jarduera ekonomiko eta berritzailearen alderaketa bat egitera.

4. DUI fokapenaren araberako Enpresa eta Lurralde Berrikuntza. Dokumentu honekin bilatu da enpresa- eta lurralde-berrikuntzaren fokapenari buruzko literatura aztertzea bilatu da, zeina baitago oinarritua eginez ikasteen, erabiliz ikasteen eta interaktuatuz ikasteen (DUI ingelesezko siglatik), zeinek laguntzen baitu azaltzen era osoago batean garapen eta berrikuntzako euskal eredia.
5. Berrikuntza enpresa-zuzendaritzaren eta administrazioaren ikuspuntutik, adierazle-azterlana osatzea bilatu duena enpresa-ikuspegia gehituz, eta zeinek erregio edo herrialdeko adierazle makro batzuekin osatzen diren adierazle mikro berrien multzoen proposamenak egiteko aukera eman baitu.

Aurreko lana amaitu ondoren, proiektuak bere lanari jarraituko dio emaitzen ustiapen egoki bat lortzeko, proposatutako sistemen aplikazio oso edo zatikoaren bitartez. Hartarako lan tekniko eta analisisiko saioak antolatuko dira Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten, Estatistikako Euskal Institutuaren parte-hartzea izango dutenak, horiek batira gaiaz erabaki behar duten erakundeak.

Orobat emaitzak hedatzeko saioak ere antolatuko dira, enpresek eta erakundeek haietarako sarbidea izan dezaten, eta bakoitzaren ahalbideen eta interesaren arabera aplikatu ditzaten. Hedatze-lan hau lortutako emaitzak laburbilduko dituen argitalpen bat gizarteratzearekin osatuko da.

Zahartzaroa eta zahartzeari buruzko kontzeptualizazioa pentsamendu-korrante ia guztien osagai dira, klasikoetatik hasita. Hala, adibidez, Platon eta Terenziok zahartzaroa gaixotasun, galera eta hondatze bezala irudikatzen zuten; aldiz, Aristotelesek -zorionez guretat- aukera-, jakituria- eta ezagutza-etapa bezala ulertzen zuten Bi ikusmolde horietatik gure kulturaren errotze sozial handiagoa duena zoritxarrez (hori ez da gertatzen, adibidez, afrikar edo asiarrak kulturetan) lehena da, zahartzaroa ezkerri interpretatzen duena.

Hala, gure gizartea zahartzarorekin eta zahartzearen estereotipo ezkerri baten azpian garatu da eta klaxe horiek, irudi horiek, ikasi eta gero ahalmen kausal handia bat dute jokabide banako eta sozialen zimentarri diren zentzuan, objektu horri buruz, eta horietaz ez gara izaten jakitun eta determinatu egiten dituzte jokabide diskriminatzaileak. Hain dira garrantzitsuak estereotipo horiek, inola ere gutxietsi behar ez genituzkeenak, eta horregatik Nazio Batuek, bai eta Osasunaren Mundu Erakundeak gomendio bat baino gehiago igorri dizkiete herrialde desberdinetako gobernuak, aurre egin diezaieten zahartzeari buruzko sasi-sinesteei.

Gure gizartean bada klaxe oso arrunt bat honela dioena: adineko jendea hondaturik dago, ez da gai gauza berriak ikasteko, ez dira beren burua zaintzen gauza, eta urteekin ezatsegin eta umore txarreko bihurtuz doaz -bihurtuz goaz, beti bihurtzen dira besteak. Baieztapen horiek guztiak faltsuak dira. Ditugun datuek ez dute berresten osasuna hondatzen eneko une puntual bat dagoenik, eta babesten dute bizitzan zehar ikasteko gaitasun zabal izaten dela, eta aldi berean sendotzen dute pertsonen ez dutela aldatzen beren nortasun zaharrak izatean, oso kontrara baizik, zientziak ziurtatzen du bizi izan den bezala zahartzen dela bakoitza. Datu empirikoetatik ondorioztatzen da zahartzaroen izugarriko aldakortasun bat

dagoela, hau da adineko pertsonen arteko aldeak handiagoak direla beste edozein adinetan daudenak baino. Hala, ezin dezakegu orokortu adineko norbanakoen artean eta sarri gertatu ohi da, praktika adina baino garrantzitsuagoa dela. Ez dago zalantzarik artikuluko honen egileek ordenagailuan duten teklak sakatzeko abiadura (guztiona bezala) beheraka doala adinarekin, hala ere, pertsona trebatu bat (adinekoa izan edo ez izan hain adinekoa) askoz bizkorragoa izango da trebatu gabeko baten aldean. Aspektu askotan, adina ez da praktika edo esperientzia baino garrantzitsuagoa baizik guztiz alderantziz, esperientziak edo praktikak eragin handiagoa du jokabidearen gainean adinak baino.

Hala eta guztiz ere, bada maltzakeria estali bat estereotipoen kontu honetan eta da horiek, ez dutela dituen talde sozial zabala soilik inplikatzeko (kasu honetan adinekoak ez direnak), baizik eta adinekoan taldea bera. Behin ikasi eta barneratu denean zahartzarorekin derrigor iristen direla era guztietako nekeak, azkenerako sinetsi egiten dugu eta haien arabera bizi izaten gara. Autore askok landu dute hau, baina gogora dezagun bere buruargitasunarengatik Beca R. Levy, Yaleko Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Epidemiologia Departamentukoak, zeinek bideratu baitzuen ikerketa-lerro bat eta bertan egindako azterlan askoren ondoren ateratzen duen ondorioa da, adineko pertsonen zahartzaroz erakusten dituzten estereotipo ezkerrek eragina dutela, adibidez, haien oroimenean, estresa eragiten dutela eta hari aurre egiteko eraginkortasun gutxiagoko estrategiak, eta, areago, biziraupen txikiagoa iragartzen dutela. Geuri dagokigunarengatik bakarrik bada ere, aldatu egin beharko genuke, zahartzaroz eta zahartzeaz dugun ikusmoldea.

Balioak, testuinguruak eta ekipoak: berrikuntza-palankak

Luis María Ullibarri (Berrikuntza Sozialeko Zuzendari Nagusia) eta **Olga Gómez** - (Innobasque) APD Aldizkaria, Urria 2010

Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziak berrikuntzaren aldeko apustu irmo egiten du aldaketa agudotuak markatutako ingurune global batean gaur egun aurre egin behar diegun aldaketa ekonomiko eta sozialen eragile bezala. Berrikuntza-engranaje honetan, bai antolaera, gizarte edo teknologiaran aldetik mila atalek integraturik ideaia, interes, pertsona eta abarren eran... Luis Mari Ullibarri, Gizarte Berrikuntzako Arloko Zuzendariak, eta Olga Gómez, Innobasqueko Enpresa Berrikuntzako Arloko Proiektu-buru eta Ekipoen Dinamizatzaileak, beren esperientzia partekatzen dute balioak, testuinguruak eta ekipoak garatzen berrikuntzaren palanka diren heinean.

Zer proiektu garatu duzue berrikuntzara bideratutako ekipoen sorrera sustatzeko?

Innobasque bere baitan lankidetzako eta ekipo-laneko gune bat da. Gure estrategia, gure lan egiteko eran islatua, tokiko gune interaktibo bat sortzea izan da, non esku hartzen baitute eragile ekonomikoek, sozialek, zientifikoek, teknologikoek eta instituzionalek, arazoak konpontzen ikasiz eta aukerak baliatzen soluzio berritzaileen ekarpena eginez, balioa sortuz ez bakarrik emaitzetan, interakzioan bertan, non bilatzen, trukutzen eta ezagutza berria sortzen baita Euskadiren eraldaketa-prozesua sustatzeko gizarte berritzaile baterantz barruti guztietan.

Baina, lankidetzak eta ekipo-lana ikaskuntza-prozesuak dira, ezagutza eta ekintza konbinatuz, teknika eta lanabesekin esperimentatuz, etengabe trebatuz eta gogoeta eginez.

Horregatik, era espezifikoa, Enpresa Berrikuntzako Arlotik unibertsitate-entresa lankidetzak-proiektu bat plazaratu genuen UPV/EHUko Gizarte Psikologiako Departamentuarekin, Belin Associates eta 11 erakunderekin. Ikaskuntzak eta lortutako emaitzek argitalpen batean ikusi dute argia: 2010eko martxoan argitaratu zen "Berrikuntza Ekipoak, Eraldaketa Ekonomikoa eta Sozialeko Motorrak".

Zertan datza "Berrikuntza Ekipoak" proiektua?

UOV/EHUko ikertzaileek planteatutako hipotesi batzuetatik abiatu ginen, eta "joko-zelaian" egiaztatzen saiatu gara, erakunde errealeko ekipo errealean. Erakunde bakoitzean pertsona bat izendatu zen bitartekari-rola har zezan, "mandatuak" esplizitatu ziren eta haiek egoteko ekipoan antolatu ziren. 66ik 8 hilabetera bitartean, bitartekariak beren ekipoak lagundu zituzten beren proiektuak prestatzen eta garatzen, kontraste eta ikaskuntzako saiok izan zituzten eta datuak hornitu zituzten ekipoen funtzionamenduak eta haien antolaera-inguruneak.

Proiektuaren ekarpen garrantzitsuenak badute zerikusia ekipoen testuinguruarekin eta honako galdera horni buruz ari izan dira: Zer zirkunstantzietan edo baldintzatan funtziona dezakete berrikuntza-ekipoek eta antolaera-ingurunera irekiek eta bihur daitezke berrikuntza- eta kultura-aldaketako traktore?". Esperimentatu dugu nola existitzen diren antolaera guztietan existitzen diren elementu komun batzuk bultzatzaile bezala edo benetako borrarero bezala aritzen direnak ekipoaren funtzionamenduaren eta haren emaitzetan.

Zein dira bultzatzaile edo "borrarero" horiek?

Elementu kritikoak lau talde identifikatu ditugu:

1. "Erronka". "Berrikuntza Ekipo" batek motibazioa behar du. Balioaren ekarpena egin erakundeari berari edo gizarteari. Haien zat oinarrikoa da ekipoaren zuzendaritzan konfiantza izatea. Ez dago bulkada hoberik Zuzendaritza batek erronka desafiozko bat jaurti, ekipoak pertsonen jardura onaz fidatu eta landutako proposamenak balioetsi eta ezartzea baino.
2. Prestakuntza. Ekipo oro bi fasetatik igarotzen da. Lehena, ezarpena, oinarrikoa da konfiantza sortzeko, jokoa ezartzeko, itxaropenak argitzea eta lan-plana diseinatzeko. Bigarrena,

funtzionamendua, helburuekiko konpromisoa lantzen d ahorratzen, gatazken kudeaketa, eta lan-kargara moldatzea. Ekipoan lan egite aez da zorizko prozesu bat. Metodologia proposatzen dugu eta "bitartekariaren" figura, ekipoak pertsonak prestatzearen arduraduna da, prozesua jagotearena eta beharrezko lanabesak hornitzearena

3. Kultura, balioak eta antolatze-testuinguruak. Antolaera hierarkiko bat, lidergo-estilo zuzentzaile hutsa batekin eta parte-hartzearen ibilbide urriarekin ez da ingurune aldekoena "Berrikuntza Ekipoentzat". Horiek beren aukera pertsonengan oinarritutako antolaerarako aldaketa- edo eraldaketa-testuinguruetan dute, zeinetan ekipo-laneko, lidergo partekatua, komunikazio eta abarreko dinamikek protagonismoa lortzen baitute eta koherenteki garatzen baitira.
4. Pertsonak, haien jarrerak eta jokabideak. Lan egiteko eraz aldatzea ari gara hitz egiten. Berrikuntza-ekipoak diziplina-aniztunak dira, departamentu artekoak eta horrek esan nahi du egoki kudeatu behar dela dibertsitatea, gatazkak, ezagutza, gaitasunak eta komunikazioa. Kudeaketa emozionala eta gaitasun sozio-emozionalen garapena funtsezkoak dira haien errendimendua hobetzeko eta, hedaduraz, erakundea.

Zer paper jokatu du Belbin metodologiak proiektu horretan?

"Ekipo Rolen" Belbin metodologiak eta INTERPLACE programa ezagutza garapen eta ekipo-rolen banaketarako lanabes bezala erabili dira. Haiei esker auto-ezagutza, elkarren ezagutza eta sinergia sustatu dira. Ikaskuntza hau funtsekoa da ezarpen-fasean, zeinean ekipoak kide bakoitzak ongi egiten dakienaren ekarpena egiten baitio ekipoari eta banakoaren ekarpenak elkarren artean osatzen dira ekipoaren sinergia erraztuko duen kontribuzio bereizgarrien sare bat sortzeko.



Laburbiltzeko, zer ulertzen duzue “Berrikuntza Ekipoez”?

Ekipoak pertsonak dira helburu komun, sozial edo antolaerako bat lortzeko lankidetzan. Ekipo batek “Berrikuntza Ekipo” kategoria lor dezan beste zerbait gehiago behar da. Aurrena erronka bat balioa sortzera bideratua, bigarrenik funtzionamendu-estilo berezi bat, ekipoako pertsona guztien potentziala eta erlazio-gaitasunak, sortzaileak, ezagutzazkoak bai eta existentzialak ere aprobetxatzeko aukera emango duena. “Berrikuntza Ekipoetan” lan egitea benetako artea da.

Nola konektatzen du Innobasquek proposatutako “Berrikuntza Ekipoak” lanak “Gizarte Berritzaile baterako Balioekin”?

Innobasqueren misioa Euskadiren eraldatze-prozesua gizarte berritzaile baterantz bultzatzea da barruti guztietan, eta horretarako konplizitateak ehuntzen lan egiten dugu eta enpresentzat eta gizartearentzat beharrezko estimulua sortzen. Helburu horretara iristek sakonera handiko kultura-aldaketa bat eskatzen du. Prozesu horretan erabakigarria da oinarritu beharreko balioak definitzea haien gainean etorkizuneko gizarte berritzailea eraikitzeko. Horretarako, Gizarte Berrikuntza Arlotik urteetan lan egin dugu, 125 pertsona baino gehiagoren lankidetzarekin, balioen lehen proposamen batean. Balio horiek erreferentzia-esparru bat dira “Pertsonengan Oinarrituriko Kudeaketa Dinamikak” hedatzeko, eta bereziki, Enpresa Berrikuntzako Alorrean lantzen diren “Berrikuntza Ekipoak”.

Zein dira balio horiek?

2010ean “Gizarte Berritzaile baterako Balioak” liburuan argitaratutako 4 balioak hauek dira:

- Ezagutza, baliabide gako, lehengai nagusi gisa.
- Lankidetzaren, gizarte-eragileen arteko lana eta harremanak errotzen dituen filosofia.

- Aldaketarako irekidura, beharrezko jarrera da lortutako ezagutza aplikatzeko eta ezagutza berria garatzeko.

- Globalizazioa, hau da, pentsaera eta ikuspena ingurune global batean jarduteko.

Zer esango zeniekete berrikuntza sustatu eta eraldaketa-prozesuak abian jarri nahi dituzten pertsonei?

Galdera batzuk egin ditugu gogoetarako gure erakundeetan eta gure gizartean bide berriak bilatzea estimulatuko dutenak.

- Pentsamendutik. Benetan sinesten al dugu eta konfiantza al dugu lankidetzako pertsonak garela berrikuntzaren motorrak?
- Emoziotik. Beharra eta kezka sentitzen al dugu daukagun ahalmen ezagutzailea, sortzailea, erlaziozkoa eta existentziala aprobetxatzeko profesional sortzaileagoak eta konprometituagoak garatzearen alde, ekipoen funtzionamendua hobetzeko, erakundeen lehiakortasuna jaso eta gizarte iraunkorrago bat eraikitzeko?
- Ekintzatik: Egunean-egunean, zer balio, testuinguru eta dinamika sustatzen ditugu berrikuntzari laguntzeko?

Europaren beharrezko erreakzioa

Paul Ortega - Nazioartekotze Programen Zuzendaria - EL País, 2010eko martxoaren 1.



Pisua eta eragimena galtzen ari al da Europa munduko agertokian? Izan al daiteke Europako batasuna ahots propioa duen eragile global bat edo posizioa galtzen ari al da Txinaren aurrean? Edo bere arrakastaren biktima da? Haren proiektua ambizioa eta ilusioa galtzen ari al da? Europa lozorroan al dago, Edgar Morinek ohartarazi duenez eta esnatzea behar al du? Zalantzarik gabe, Lisboako Ituna indarrean sartzea 2009ko joan den abenduaren 1ean zenbait gertaerak eta "albiste mehatxuzkok" ilundua ikusi da agertoki globalean, izan ere zalantzak sortzen baitizute Europaen kokaguneaz eta nazioarteko prestigioaz. Aipa ditzagun horietako batzuk:

- Kopenhagengo Gailurra Aldaketa Klimatikoaz (2009ko abendua), non azken akordioa EEBB, Txina, India, Brasil eta Hegoafrikaren artean gauzatu baitzen (gorantz datozen herrialde nagusietako batzuk), EBri bizkar emanda eta NBE, Konferentziaren erakunde arduraduna alde batera utzita.
- Berriki sartu da indarrean Asian mundu-merkataritza askeko gune handiena. Joan den 2010eko urtarrilaren 1ean Txina, Brunei, Indonesia, Malasia Filipinak, Singapur eta Tailandia herrialdeek gune ia zergarik gabea sortu dute, eta merkataritzarako kostu murriztuagoak dituen, 1.900 milioi pertsonarentzat (EB baino ia lau aldiz gehiago, nahiz eta termino ekonomikoetan oraindik urrun dagoen europar kopuruetatik).
- EEBBetako lehendakariak, lehen aldiz historian, EEBB-Europa (Madril, 2010eko maiatzean) hurrengo Urteroko Gailurrean ez duela esku hartuko iragartzea.
- Munduko ekonomia-krisiak askoz gehiago erasan dio Europari (EEBBekin batera) beste herrialde batzuei baino (Txina, India, Brasil, Peru, Australia, Korea, Indonesia, etab.)

EREDU EUROPARRA

Barnetik ere agertu dira erreserbak europar proiektuarekiko. Hala eta guztiz ere, funtsezkoa den zerbait azpimarratu behar da: EB ez da soilik bake-, demokrazia- eta egonkortasun-istorio bat, baizik eta erakarpen- eta eraldatze-indar bakar eta salbuespenezkoa transmititzen duela.

Parag Khannak gogorarazten digun bezala ("El segundo mundo- Imperios e influencia en el nuevo orden mundial" obraren egileak, EBA da "historiako inperio ezagunena eta oparoena ez baitu menderatzen, diziplinatu baizik". Analista honek azpimarratzen du europartzearen pizgarriak -zirkulazio askea, euroa moneta bakar bezala onartzea eta diru-laguntzak- onegiak direla ez nahi izateko. Eta hala, pixkanaka Europaren mendebaldea eta ekialdea batzea ez da politika eta ekonomia bakarrik, baita kultura ere. "Europar herrialdeen identitateak eraldatzen ditu tribaletik kosmopolitara" eta EBan txertatze berrien dinamismoak "federalismo lehiakor" bat eragin du, orokorrean ekonomia pizgarritzen duena. Nahiz eta Europa markak prestigio handia duen munduan, EBak bulkada berri bat behar du, bere baitatik sortuko dena. Europak eraldatu beharra dauka berrikuntzan oinarritutako ekonomia global bat lideratzeko.

NEURRI BERRITZAILEAK AURREKARI GABEKO ERRONKEI BEGIRA

Europar Batzordeko Enpresa eta Industriaren Zuzendaritza Orokorraren baitan berriki, Enpresa Panel hautatu batek Europa Berrasmatu agiria jaiarazi du berrikuntzaren bitartez ezagutzaren gizarte batetik berrikuntzaren gizarte batera. (http://ec.europa.eu/enterprise/policies/innovation/files/panel_report_en.pdf)

Haren arduradunek proposatzen dute Europar Batasunaren ekintza aurrean ditugun aurrekaririk gabeko erronketan oinarritzea, eta ondoren laburbiltzen diren proposamen sorta bat formulatzen dute:

- Berrikuntza kontzeptua zabaltzea, enpresa-berrikuntzari eta gizarte-berrikuntzari aplikatuz.
- Eskala handian pizgarritu oinarrian sortutako berrikuntzak;
- Lankidetzaren publiko-pribatuaren aldeko apustua egitea, bai eta barruti transnazionalean ere;
- Abiadura eta sinkronizazioa txertatzea EBeko maila guztietan, itun malgu eta berrikuntzaren aldeko arauketekin.
- Sektore publiko eraldatzea;
- Azpiegitura berrien potentziala askatzea, banda zabalerako eta sare elektriko adimendunetarako "sarbide irekia" abiaraziz;
- Finantzaketa-eredu berritzaileak abiaraztea (kapital-arrisku eta gizarte-berrikuntzako funtsak);
- Guneak bultzatzea lankidetzaren berriarako (adibidez, berrikuntza-laborategien artean), sareen boterea eta Europan eta maila globalean ezagutzarako sarbidea aprobetxatuz: Berrikuntza irekia.

Lortuko ote du ikusmolde eraldatzaile honek Europak bere burua berrasmatzea eta ager dadin deliberatuki mundua eskatzen ari den lider baikor bezala? Eta gure Euskal Herrian, testuinguru global-lokal konplikatuan, errepide-orri erreferente bat ez ote da guretzat ere?

FLL 2010

FIRST®LEGO® League

FLL

FIRST LEGO League Euskadi



FIRST LEGO League Euskadi



imaginar es
tu asignatura
más importante

Gracias
a quienes lo
haceis posible:
personas
voluntarias,
patrocinadores,
colaboradores,
medios de
comunicacion,
participantes,
familias, y
escuelas.

Eskerrikasko





Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentzia, irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatua da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileek, enpresa pribatuek, euskal instituzio publikoek, euskal enpresaburuen eta langileen ordezkari instituzionalak, eta berrikuntzarekin zerikusia duten mota guztietako erakundeek eratua. Nola kapital publikoak (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia) hala pribatuak finantzatua da, bere 1.000 erakunde bazkide baino gehiagoren ekarpenen bitartez.

Innobasquek plataforma indartsu bat eta lankidetzaren sare bat eskaintzen du eragile horientzat guztientzat, haren bitartez euskal gizartean berrikuntza sustatu eta hedatzeko, enpresetan, euskal erakundeetan eta gizarte osoan eraldaketaren dinamika sortzen lagunduko duten ekitaldiekin, Euskadiren irudia hedatuz gizarte berritzaile, eta I+G+b-aren gune aurreratu gisa.

Innobasquek esku hartzen du honako administrazio-kontseilu eta organo zuzendarietan: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES); administrazio-kontseilua eta organo zuzendarietan The Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL), The Basque Center for Applied Mathematics (BCAM), Euskalit, Ikerbasque, Orkestra (Lehiakortasuneko Euskal Institutua) Fundación Loyola Media Berrikuntza, Iñaki Goenaga Zentro Teknologikoen Fundazioa, LeiBerri, Gipuzkoa 2020, Lehendakari Batzorde Aholkularia, Langune, eta b20 (ILSI, Institute for Large Scale Innovation, San Francisco). Guillermo Ulacia da Innobasqueren lehendakaria 2009az geroztik.